

FONTES
LINGVÆ VASCONVM
stvdia et
docvmenta



SEPARATA

Año XLIV • Número 115 • Julio-Diciembre • 2012

Artzibar iparraldeko
hizkeran sakonduz

ORREAGA IBARRA MURILLO

Artzibar iparraldeko hizkeran sakonduz¹

ORREAGA IBARRA*

SARRERA

Artzibar iparraldeko euskara aztertzea da gure xedea lan honetan; honetarako, bi herritan (Arrieta eta Hiriberri) eginiko inkestetan oinarrituko da lan hau. Artolak XX. mendeko azken urteetan burutu zituen elkarrizketa hauek, euskara indargabetua zegoen une horretan. Horregatik, Artzibarko euskaran sakontzeko bide egokia dela iruditu zaigu azken hiztunen mintzozan oinarritzea, eta bereziki Artolak eginiko azken lanetan (*cf.*: Artola, 2006, 2007, 2010).

Hauek dira hiztunak eta grabaketak: lehena Saturnino Etxamendi, gure amaren osaba, Arrietan sortu eta gero Esnotza ezkondu zena. Koldo Artola ikertzaileak han ezagutu zuen, 1981 urtean, eta harreman horren bitartez sortu ziren elkarrizketa ugari eta argitaratutako artikulua guztiak Arrietaren inguruan. Material aski ona dela iruditu zaigu Artzibarko aldaera sakon ezagutzeko; kontuan izanik horko euskara zuela gizon honek, gure amaren osaba propio zenak. Bertzeak bertze, Esnozkoa zuen emaztearekin ez baitziren elkarrekin ia ezer euskaraz mintzatu; honenbertzez, testu hauek eremu honetako azterketa zehatz bat egiteko balio dute; eta, gisa honetan, aldaera honen irudi zehatzagoa izan dezakegu.

Ondoren, Artolaren hirugarren lanean (Artola, 2010), Hiriberriko euskararen transkribaketak ditugu; Francisca Larragueta (84 urte), Lino Mendez (85 urte), eta Soledad Arboniés (51 urte) hiztunenak. Berriemaile hauei 1971 urtean egin zien grabaketa. Ondoren, 1980-83 urte bitartean, Ambrosio

* UPNA/NUP.

¹ Lan hau Ministerioko FF 12012-33190 «Núcleos innovadores en los dialectos vascos» izena duen proiektuaren babesarekin burutu da.

Usozen mintzoarenak ditugu, nahiz eta Kaliforniako egonaldiak arrastoren batzuk utzi dituen bere mintzaeran, nagusiki Artzibarko aldaera darabil gizon honek. Nolanahi ere erabat interesgarria suertatzen da gizon honen mintzoa, Hiriberrikoak zituelako gurasoak ere. Horrela ba, XX. mendeko Artzibarko eta Hiriberriko ahozko datu zehatzak ditugu hemen.

Ambrosio Usozen mintzamoldearen eta Saturnino Etxamendiren artean baziren desberdintasunak; Ambrosio Usoz, Hiriberriko semea Kalifornian egon zen eta, han Baigorri eta Garaziko artzainen eraginak jaso baitzituen, Artolak (2010: 17) 17. orrialdean jartzen du zein ziren ezberdintasun hauek. Aditzetakoak bereziki, izan ere Usozek *niz, iz, bazira, gia* modukoak eta *nin, nitin, zin* zerabiltzan. Gisa berean, hiztegian *untsa, untsalaz, xarmant* eta *-ia-n* bukaturikoak agertzen ziren: *burian, ingurian, ordian*. Baina, ezaugarri haue-tatik landa, gainerakoak Artzibarko euskararen ezaugarriak dira.

Kokapen dialektologikoaz zerbait argitu behar dugu. Yrizarrek, Artzibarko aldaeraren barruan sartu zituen Esteribarko herri batzuk, eta Erroibarko aldaeraren barruan bertze batzuk.

Beranduago, Camino ikertzaile donostiarrak, lan sakona egin ondoren Artzibarko hizkera kokatu zuen, eta haren irudiz, Artzibarko Euskara hego-Esteribarrekin ez, baizik Eguesibarkoarekin lotu beharko litzatekeela zioen, biak «Erdialdeko hego-nafarrera» deritzona osatuz, talde honetara Erroibar eta Hego Esteribar ere bildu beharko liratekeelarik (Camino, 2003b: 465). Egun ere Artzibarko jendeak badu harreman estu xamarra Eguesibarrekin Agoitzen eta Urrotzen barna joanez, nekazaritza dela eta handik ekartzen dute lastoa, haurrak Agoitzera joaten dira eskolara etab.

Caminok arrazoia duela uste dugu, kokapen aldetik GN ekialdekoetik hurbilago baitago hizkera hau Erroibarkoa baino. Egia da Erroibarrekin izan dituela harreman handiak eta horiek argi agertzen dira ezkon-harremanetan, (ik. Ibarra, 2002), errefracuetan: *Petiri zanga gorria, Mezkititzen hazia* (ik. Arana, 2004: 79) eta Saturnino Etxamendik egiten dituen erreferentzia guztietan: Artzibarretik Erroibarrera, erraterako, izurritea pasatzen ez uztearen pasadizoa, txerrien salmentarena, ezkontza erroibartar batekin...

Bertzaldetik, ezin da ahaztu urteetan zehar, Aezkoarekin ere harremana izan dela; gure ustez Artzibarko jendeak Erroibarkoak baino harreman handiagoa izan du aetzekin. Arrietatik Garraldara aise heltzen da mendiz, eta bi herrien arteko senitarteak izan, badira; gisa berean, Aribera feriara maiz joaten ziren, Arrietako zaharrek kontatzen digutenez. Eragin hori dela eta, Artzibarren betetzen dira Caminok (2003b: 450) proposaturiko «hedadura zabaleko ekialdeko ezaugarri gehienak». Hauetatik denak betetzen dira Eguesibarren eta hemendik eskuin Aezkoaraino hedatzen dira eta Erroibarren eta Artzibarren ere gehienak agertzen dira.

Hauek dira laburbildurik:

Alderdi fonikoan, honako ezaugarriak: *iduzki, iduki* aldaera asimilatu atzeratuak, aferesiak, sinkopak, *-rtz-* kontsonante taldeak, hitz hasieran afrikatuak eta *-tzeunte* erako metatesiak. Honezaz gain, *-l-z* bukatu erdal maileguetan *-le* ageri da: *arbole*.

Izenaren morfologian ergatibo pluraleko *-ek* atzizkia, genitibo singularreko *-ain*, ablatibo pluraleko *-etarik*. Erakusleen sailean hurbiltze adlatiboko *-rat* atzizkia, bigarren zenbatzailean *bi/vidal/biga* bereizketa gramatikala egitea, *-tza* atzizkiaren ordeztu, *-tze* agertzea, *-ki* moduko atzizki txikigarria erabiltzea

-*txo*, -*na* izan beharrean, bokal ondoko atzizki banatzailea -*ra* izatea. Azkenik, aditzondoak errepikatzean, absolutiboa agertzea: *isil-isila*.

Aditzaren morfologian, geroaldian -*en* morfema, **ezan* eta **edin*-ekin osatzen ez diren baldintzazko protasian etorkizuneko morfema erabiltzea; *edan banezake gauze ura, il...ilko nue*, erlatiboan eta konpletiboan *den, zen/den eta zela/dela* ereduak. Bertzaldetik, aditzetan *joan* paradigmak, *noaye, goazi, etorri* aditzetan forma trinkoak aginterazko adizkian erabiltzea eta *bel-du izan* gainerakoendako. «Izan» aditzaren ahaleran *Naike* forma laburtuak, **edun* eta **ezan* jatorria duten adizkietan *dezakete > zaket*, eta *ditut > tut* era-laburdurak eta *izan*, **edun*-en ordainetan *dut, duk, dun* saila erabiltzea.

Sintaxian, -*larik* atzizkia denborazko perpausetan, *bait*- kausazko perpausetan (nahiz -*lakos* ere agertzen den), erlatibozkoetan *bait* erabiltzea, *utzi* aditzaren osagarria aditz nominalizazioan adlatiboko atzizkia agertzea, *uste izan* aditzarekin -*en* atzizkia erabiltzea perpausa ezezkoa denean menpeko konpletiboan -*ela* eta ez *-*enik* agertzea.

Hurrengo lerroetan Artzibarko azken urteotako euskararen sakontzeko para-da izanen dugu.

1. FONETIKA-FONOLOGIA

1.1. Bokalismoari dagokionez, *oa > ua* taldeak ixtera jotzen du batzuetan: *da nesakua, ez mutikua*. Baina, ez da sistematikoa, Arrietan ez baita sobera itxia; -*oa*- taldea nahiko ongi gordetzen da adibide pila batean: *astoa, biloa, agoa, besoa, osto, leyoal/leyua, gaiztoa/gaixtua*. Gisa berean, -*e* bokalari artikulua eranstea nahiko ongi gordetzen da bokal parean, -*ia*-ra itxi gabe: *semea, maitea, alkatea, tenorea...*

Bertzaldetik, *o > u* bokalaren itxiera dago, nahiz oso emankorra ez den: *Zato unat, alurra*. Hiztunak bi aldiz errepikatzen du, beraz ez da hain bakana. Urriak diren arren, asimilazio prozesu solte batzuk baditugu: *e > a: t'a-gartzen diré...* *Olondriz*, baita asimilazioak ere, adibidez, *i > e* asimilazioa: *Ireberriko*.

1.2. Triptongoak. GN hegoaldeko bertze bilakabide bat nabarmendu behar da. Eredu honetan, antza, baditugu diptongo laburketak edo bokal arteko **j* galtzeko joera handia. Ezaugarri hau ekialdeko aezkeraz eta Erroibarren aurkitzen dugu: *geago, baetz, haien > aen, *naye > nae, egitea* ('hoz') *oanetik, oetaik*. Esteribarren: *anaea, itzea* (= itzaia) (ik. Artola, 1992: 203) eta Artzibarren: *oetan, oek, aendako, oekin*, eta *beak* (= behiak) ditugu, *bateo < bataio*, (EAEL 215. grabk). Alegia, *yod* desagertzen da bi bokal artean dagoenean: *beekin, arrai > arrae. Aren etxean eztute arrae bat ikusi*. Ezaugarri honetan batera doa Erroibarrekin.

Artolak dioenez, tarteko irekiera bat dago *anaëa, artzaëa, errotazaëa, loe, bea* eta *maean* moduzko hitzetan. Batzuk bokal erdian bukatzen dira eta -*a* determinatzailea erantsi ondoren sortzen dira: *anai + a > anaëa*; baina, batzuetan morfema erdian gertatzen da, bereziki *e*-ren atzetik: *gei - ago, bea*.

1.3. Bokalardiaren kontsonantizazioa dugu *u > b* kasuan: *gau > gaba*. *Oi ze gaba pastu nuen*. Bertzetan, -*g*- antihiatikoa tartekatu ohi da hasperenke-ta zegoen izenetan, GN osoan ohikoa den bezala: *euria* eta *eguria* ditugu: *Berregun millonak; egun begiekin erabili bear da; negurria*.

Bertzaldetik *oi > io bilakabidea gertatu da, adibide ugariak ez badira ere, Artzibarren badugu *sario* hitza: *Gero Sariora, sariotik etxera... Erroibarren, ordea, *io > oi* gertatu da.

1.4. Monoptongaketak sailean, *ai* diptongoa > *i* bihurtu da, ekialdean eta GN hegoaldekoan: *jinkuenpaxa* daukagu Esteribarren (Echaide, 1989: 16. galdera) eta Mezkitzen ere *Yinkua*. Hemen ere *ai* > *i* dugu: *atra zite, Yinkoa*. Bertzaldetik, *eu* taldean txandaketa dago, *ulie* dugu, baina, *euria*.

Diptongoetan badira hainbat mugimendu edo aldaketa, gehienak oso sistematikoak ez direnak: *Au > ou : jautsi > joutsu, soutsu*. «*Sóuts! sóuste, bajáis? sòsi zauzté?*».

Bertzaldetik, diptongoetan *eu > au* aldakuntza aurkitu dugu *daus* eta *gauren* hitzetan Arrietan, Hiriberrin ere badira adibide batzuk Aita Gurea otoi-tzean: (*barka dizkiguzu gaure zorrak, gauren zor gaittuztenei*). Baina, ez dago Elkanoko euskaran dagoen maiztasunarekin, erraterako, *eu > au* jasaten dute hemengo izenordainek: *aure, zaure, gauren*. Eta, honenbertzez, ezaugarri honetan Eguesibartik aldentzen da pixka bat.

1.5. Aferesia, protasia eta apokopea. GN hegoaldean (Erro, Esteribar), ia GN iparraldeko Baztan osoak, eta Ultzama, Atetz eta Anue haranek erakusten dute delako aferesia. Maiztasun handiz sortzen den fenomeno dugu hau, alegia, hasierako bokala galtzera duen joera. Artzibarren maila apalean agertzen da: *txokandrea erran zigun, maztia, men < omen, zarri < ezarri. Hori men da...* Batzuetan silaba osoa desagertzen da *dute > -te. paratu biarkote*. Toponimo honetan ere bai: *Imizkoz > Mixkoixko, Mixkoitzen*. Forma hauek ohikoak dira ekialdeko euskalki batzuetan: aezkeraz eta GN iparraldean, Baztanen (ik. N'Diaye, 1970: 195) eta Ultzaman ere bai.

Protasiaren adibidea da GN hegoaldeko hitz hau: *ekendu* hitza Eguesibarkoa: *hasi ekentzen*, nahiz Artzibarren oso sistematikoa ez den. Apokopea bakanka agertzen da *-i-z* bukatutako aditzetan, *-i* desagertzen da: *egos tira. Zil ortan oaño geiltu da bertze trunku bat. Sartzen dire zil oetan*.

1.6. *u/i* txandaketa dela eta, *i*-ren alde lerratzen da, GN hegoaldekoan ohikoa den bezala: *-u/-i* txandaketaren bertze adibideak hauek dira: *xilo at, andik zilo, xilatu*. Caminok dioenez, *-tuko* ageri da XIX. mendean Uritzen, baina, XX. mendean *-tiko* nagusitzen da: *konpondiko gara, galdiko (=galdetuko), nork sinestatiko zuen. An topatiko bi gizon lanean. Ekendiko diat. Ukatiko, arreñatiko gara, brinkatiko da, urtiko da, ilundiko da, atakatiko, saldiko*. Beraz, erruz agertzen da. Erroibarren ere bilakabide hau berri xamarra da, XIX. mendeko testuetan ez delako agertzen (2000: 195). Hartaz, berrikuntza delakoan gaude, Aezkoan ere horiek ez ziren ohikoak, baina Esteribarren eta Ultzaman, bai.

Hiriberrin, *-u +a > -ia* bukaera dago Ambrosio Usozen adibideetan: *ordian* (= orduan), *burian, ingurian, ezkondia*, baina hauek Behenafarrarekin izan zuen harremanarengatik izan daitezke.

1.7. Sinkopa. Goinafarreraz eta ekialdeko hizkeretan gertatzen den bezala, sinkopa arrunta izaten da, ekialdeko euskalkien neurrirra heltzen ez bada ere. Goinafarreraz ere ohikoa da, eta horrela, baditugu gisa honetakoak, bokala desagertzearen ondorioz, herskari + dardarkari inguruetan eta baita herskari eta albokari inguruetan ere: *atra, bedreatzi, denbra (denbora), gibrá, hilibete, libroen sellue, artu lib(u)rua, lemixko, orla < horrela, àiltzen < altzin-*

tzen), *giblitik*, *limixko*, *kluxka*. Aranak gauza bera azpimarratzen du (A. Arana, Hiztegia: 2004).

1.8. Goiko bokalek eragin asimilazioaz mintzatuko gara orain, Arrietako hizkeran bada ezaugarri bat aztertzea merezi duena, gehienetan *-a* bokala nagusitzen da aitzineko *-u* eta *-i* ren ondoren: *kulpa*, *erbia*, *beldurra*, *guziak*, *mutila* baina, gure datuak hartuz, bada bokal harmonia erakusten duen adibide bat: *eztire torri*.

Erran bezala, Arrietan *-i*, *-u* izenek *-a* mugatzailea hartzean egiten dituzten errealizazioak *-ia* eta *-ua* izaten dira. Baina, Artzibarko Espozek markatzen du trantsizioa, Artolaren arabera, hemen *-e* bukaeradunak maizago agertzen baitira kontestu hauetan: *mutile*, *zikine*, *ulie*, *ilergie*, *izerdie*, *zorrie*. Baina, ez da sistematikoa, Espotzen ere (Artola, 1993): *ipurdia*, *zubia*, *zaldia*, *arria*, *sua*, *larrua*, *sagua* agertzen direlako. Ilurdotzen gauzak bertzelakoak dira. Herri honetan *-ue*, *-ie* nagusitzen hasten dira eta *eurie*, *zurie*, *aurpegie*, *opile* bezalako adibideak entzuten dira.

Caminok dioenez (2003a: 36), Artzibar, Eguesibar eta Aezkoarekin doa, Eguesibartik bereiztuz, eta Urizko dotrinan ere ez da goiko bokalen asimilaziorik. Ados gaude, ba, Caminok dioenarekin, Artzibarko aldaera Eguesibari eta Aezkoari lotzen zaiola.

Beste daturik ez dugun artean, elkarren ondo-ondoan dauden ibarrak izanik ere, Erroibartik Artzibarrera asimilazioaren gaian aldea dagoela pentsatu beharko dugu, Artzibar, Eguesibar eta Aezkoarekin batean doala eta Erroibar Baztanekin eta Nafarroa Garaiko erdigune asimilatzaile eta berriarekin batera.

1.9. Kontsonantismoaren atalean, herskari ahostunei dagokienez, *-g-* eta *-b-* desagertzen dira bokal artean, nahiz oso bilakabide emankorra ez den. Toponimoetan ere ageri da fenomeno hau: *Naoreko karreteroak emain du. Doniane*.

Bertzaldetik, herskariaren arteko, *-d/g-* txandaketa adibideak ediren ditugu: *igande* > *idiande*, *erdara* > *ergera*, *igan/ iddan*. Gisa berean, *d/r*-ren txandaketa dugu. Ez du ematen txandaketa sistematikoa denik, baina adibide bakan batzuk aurkitu ditugu: *iruki: Etzazu kontuk iruki jente orrekin, etzazu iruki tratuik beraikin*. Honez gain, *e* > *i* itxiera ikusten dugu. Kasuren batean *bedak* (berak) dugu: *Bedak du semea apez Arrietan, d/r* txandaketarekin. Bertzaldetik *r/l* txandaketa dugu: *jo indalekin*.

Herskariaren arteko elkarketetan, *d-z* hasitako ozenak ahoskabetzen dira: *-k + d -> t* eta *-k +g- -> k*. Kontsonante herskari ahoskabeak maiz agertzen dira sandhi inguruetan: *Nor taki ze denborako eskriturak izein tziren aek. Aferei kabe...*

Herskariaren sailean, *p/-b-* hasierakoei dagokienez, txandaketa ahostunaren alde lerratzen da: *Burrustaka: burrustaka gaitza*. Butzua: 'pozo'. Bikor 'grano'. Buzkarra: 'pedo'. *Buzkar bat in bar dakot marmitai*. Baina, batzuetan *P-* da nagusi hasieran: *Pazkoitan eta Pazkuan yoain gara*. Belareen sailean, zenbaitetan ahoskabea dugu, *k-*: *kauza abek, korputza*, eta bertze batzuetan *g-* nagusitzen da: *gatu*.

1.10. *-on* bukaera gordetzen da gaztelaniatik datozen *-ón* bukaturiko erdal maileguetan: *Orrek badu kañone bat. Funtziona. Oraiko kañonak eztute ainbertze. Millonak. Orréan? izán tzüté... funtziona. Pistona patu. Bendizona*

bota. Eztute ainbertze ola. Leonak bazire, -oñ ere agertzen da erdal -oin bukaerakoetan : ze arrazoñak!

Baina gero, *-io* bukaerakoak ere badira, erdal *-ión* kidekoetan: *Diputazioak, obligazioak, telebisioa*. Baina, metatesiaren bidez, hego-nafarrazko Goñerrian, Itzarbeibarren, Oltzan, eta Artzibarren *-io* bukaera dugu. Aezkoan eta Zaraitzun ere bai: *arratioa* ‘rata’ dugu Hiriberrin. Esteribarren eta Erroibarren, ordea, *-oi* saila dago.

Sudurkariekin segituz, *-tzen -duzu* elkarketan, GN hegoaldekoan, aditzetan *-t(z)en* partizipio burutugabea + *d-z* hasitako aditz laguntzaileak elkar-tzerakoan, eta /d/ bokalarteko kontsonante hau galdu ondoren metatesiak sortu ohi dira, esaterako: *Kusteunzu zenbait. Nola uzteunte. Tzerrien aspillean yáteunte. Garbitzeunt. Urte bat edo... bi urte? Asentatzeko... betetzeunte. Nola deitzeunte. Ur aundia errateunt. Errateunte zu izein tzarela alkatea, nonbratuik alkatea.*

Ez + n-: ez partikula *n-z* hasitako adizkiarekin elkartzen denean, txistukaria galtzen da: *enaike jua*n dugu.

1.11. Txistukari afrikatuen sailean nahiko arrunta da hitzak kontsonante afrikatuz hastea, apikoalbeolaren kasuan izan ezik. Orokorrean *tz-* fonema afrikatua arrunta da ekialdeko hizkuntzetan, zubereraz eta erronkarieraz: *Z. tzintzarri* ‘campanilla’, zar. *tzimur* ‘arrugado’, erronk. *tzuntzur* ‘garganta’, gehienak aldaketa adierazgarriak direlarik (ik. Txillardegia, 1983: 949).

GN hegoaldekoan, Nafarrera beheraz eta aezkeraz bezala, «tz-» fonema agertzen da hitz hasieran. Gure eremuan, Moutardek Iragin (Esteribar) honakoak bildu zituen: *tzikiroa, tzakur, tzutik, tzerri* eta Artzibarren, Esteribarren eta Ezkabarten ere ohikoak dira honakoak, *tz-*: *tzakurre, tzerri tzar bat il dute, tziminia, tzitzorra* (granizo) (Artola, 1992: 203). Arrietakoak dira *tz-*dun hauek: *Orai tzartu gera ta, emen eon biariko geldi-geldia* eta gehienetan *tz-*ren alde egiten du: *Txorrotzak, tzakurrein buztana, tzerri, tzakur*. Nolanahi dela ere, bertze batzuetan, Arrietan *x-* dago hasieran: *xistua in*.

Baina, zenbaitetan, bi afrikatu hauen txandaketa, *-tx-*ren alde egiten da Arrietan: *tzidan > txira, bertzea > bertxea: Bueno, anáeak errán txira... , bértxëa onáta; nolapáin (sic) eré, biltxen zé, ze gustoan pipatzen zu. Bertxeak enfadatuk, bakotxak bere etxea guardatu behar du. Tá, Ártxéko bállea? o Ayüntaméntö(b)à? errá omen (t)xuté.*

1.12. Artzibarko euskarari palatalizazio guti dago, GN hegoaldekoan bezala, bai *-il-* taldeetan, baita *-in* taldeetan ere: *urrina, estrabilia, mine, girgila, zikina, ilarra, irine, zurgina, ilargia, barrabilak*.

1.13. Yod den bezainbatean GN hegoaldekoan hiru aldagarri erabili zirela badakigu; *j-* belarea, *y-* sabaiko igurzkaria eta *x-* sabaiaurrekoa. Azkeneko hau nagusi zen Eguesibarren eta Olaibarren. Gaur egun, *y-* gailentzen da Artzibarren euskal jatorriko hitzetan: *yan, yarduki, Yinkoa*.

Baina, **j-*ren hots txistukari sabaiaurrekoaren adibideak badira eta *s-* edo *x-* edo *-tx-* ere badira **j-*ren ordain gisa: *sinetsi eta jinetsi, jinestatu, xitoak* (ijitoak). *Ah, xitóak? bí arrébak joan txirén?* Ondoko herrian, Ilurdotzen, bi fonema hauen txandaketa gertatzen da (yendiak/tsendiak): *yendeak erraten du/ (Ar), tsendiak erraten du* Ilurdotzen. *Bigarren egune da zaia/zaie (jaia). Eskúa segídoan nekátzen zé, errestrátuz. Sautára... sautsí ta; pantalonak sautsi eta alfortxa.*

Esperatzekoa denez, belarea nagusitzen da Arrietan erdal jatorrikoetan: *tejeroak, juntatu, ojalata, biaje, Amaberjina*. Baina, belarez hasitakoak ere bada dira euskal jatorriko hitzetan: *joan* eta *jo* aditzetan, nahiko sistematikoki: *juan (juaten bazate...), jo (jo indalekin), jo indarrekin, alúrretán eta óla, kánpooan! aítzen duté... sagúak nó n díren, te, segídoa joàten diré, tzast! artú ta...joain dire*, baina Esplotzen *fain* dugu.

Laburbilduz, Arrietako hizkeran txistukari sabaiaurrekoaren adibide gehiago daude Erroibarren baino, adibidez, Urizko dotrinan *sautsi* ageri da: *sautsi, xitoak, zito (ijito), zaia, alfortxa, tsendiak, xarduki, xabe* eta adibide hauen ugaritasunak ematen dio hizkera honi ekialdeko kolore handiago.

1.14. Behiala, zenbatzaile batzuek, dardarkari anitza zeramaten azken posizioan b. nafarreraz, aezkeraz, lapurteraz eta zubereraz bezala. Forma hauek ekialdeko euskalkietako bereizgarriak dira. Honenbertzez, *irur* dugu Erroko testuetan eta baita Elkanokoetan ere (ik. Lizarraga, 1807: 31, 56). Artzibarren *laur* dugu: *laur lauza oiek*.

Bertzaldetik, *-r-* eta *-l-*ren arteko txandaketa gertatzen da *zula* hitzean (Arrieta, Espotz, Azparren), baina, ez dirudi oso sistematikoa denik: *zé zúlak, zé zul-kláse zé, zulezko kutxeta*. *-Eurroa (egur ohola)* erantzun hau ematen du «ikatz» galderari erantzuteko: *ikatz, eurroa*. Azkenik, dardarkariaren ondoan, *-d* dugu *t-*ren orde, kasu ablatiboan: *hordi eta hordik: Ordi eskorritzen tze ongi... Gero ordik bete. Errauts goi ken zazu ordik*.

1.15. Bukatzeko, Ipar Euskal Herrian, Zaraitzun eta hego-nafarreraz bezala, *-l-z* bukatu maileguetan *-le* ageri da: *arbole, kristale, ofiziale, korrale* erraten da Artzibarren. Hau da ekialdeko ezaugarri bat eta agerpen nabarra erakusten du.

2. IZEN MORFOLOGIA

Izen morfologiaren arlo batzuk aztertu behar dugu orain, deklinabidearenak, hain zuzen ere:

2.1. Absolutibo. Mugagabe, mugatuari dagokionez, jakina da euskaraz, azken honetan mugatzaileak gero eta gehiago ezartzen direla. Aditzondoak, adjektiboa eta bigarren mailako predikatuak mugagabe edo partitiboarekin adierazten dira mendebal eta erdialdeko hainbat kasutan.

Baina, ekialderagoko hizkeretan mugagabea ugaria da, baita Artzibarren ere: *i gaixto aiz, gaxto zara... batre ona. Arrítzeko dá... zéin gáitzak dirén! Ordu de etxera yoateko. Baña beste denboretan gaixtoa, arras gaizto*. Bukatzeko, *entregu izan* edo *gai izan* formak mugagabeak dira: *Entregu naiz. ltsatzen dela ta, eztela entregu*.

2.2. Kasu ergatiboari dagokionez, jakina ere bada, euskararen dialektoen artean euskalkiak bi multzotan bereizten dituen isoglosa garrantzitsua bada-goela; hau da, alde batetik absolutibo pluralaren eta ergatibo pluralaren arteko ezberdintasuna egiten duten euskalkiek, (*-ek*) morfema atxikiz ergatibo pluralerako, eta (*-ak*) absolutibo pluralerako.

Artzibarren, nahiz eta pluralean *-ek* erabili gehienetan, ez da sistematikoki egiten, zalantza ugariak erakusten baititu. (ik. Artola, 1992: 144, 210): *gizonek erran tziote maztekiei (Il)* eta *gizonak erran zekote(n) ...mazteai (Ar)* eta: *Aéxkiak galdítzen tzire égia zén edo gezúrre. Aizkídeak...galdíten zuté yá...égia zén edo gezúrre zén*.

Saturnino Etxamendik errandakoetan ere *-ak* da nagusi: *oraiko kañonak ez tute ainbertze. Alorrak naute euria; euria falta. Iru ardiak eztute ainbertze iaten. Mutikoak yan dute ogiak. Zé in zute frántsak? tabérnara bildú... gizonak ta, sóbra edanázi, moxkórtu, dénei... bertzéak orduén artú àbrèák?*

Eta Hiriberriko Anbrosioren ahoan, antzera: *Nabartxaleak eztakite oearka o bidelan paratzen. Arrietan ere bai: Mutikoak yan dute ogiak. Gizonak ikusi dakote mazteai, baina Hiriberrikoetan, batzuetan txandaketa dago, baina bokal harmoniaren eragina izan daiteke: maztekiek kusi zute gizonei. Kasu honetan izenordain galdetzaile ohikoa den Nork, kasu batean Norek da: Norek bear du jasan.*

2.3. Genitiboa. GN hegoaldekoan genitiboaren morfema ohikoa *-ain* da singularrean, eta pluralerako *-en*: *aitain lana da aundia, semeina.*

Kontuan har bedi, *bezala*-rekin genitiboa deklinabide forma erabiltzen dela: Gure *bezala* yardukitzen. *Gisa* genitiboaren morfemarekin erabiltzen da *-en gisa*: *txakurra ta katuaín gisala; An, bóta iriná? ta butzúin gisá, in... bí al-detará...; éz ógien gísara.*

Aparte posposizioarekin ere *-en* mugatzailea erabiltzen da *-en aparte*: *Sekulan enaiz aitu andreain aparte. Ingurutik denak yeloskoak.*

2.4. Kasu soziationboan *-aki* dugu maiz askotan: *filaeki, inzensarioaeki, kustodiaki, filaeki, beleki, batzueki, -ki* ere da Eguesibarren erabiltzen den morfema. Kasu soziationboan, honako bi morfema hauek txandakatzen dira: *-kin* eta *-ki* GN hegoaldekoan. Elkanon ere, badirudi, bi morfema hauen arteko txandaketa aspaldikoa zela, Ondarrak (1982: 165) ematen dituen apunteetan frogatzen daiteke honako hau, *-aki* morfema Ultzaman, Sakanan, Odietan, Baigorri eta Zuberoan arrunta da egun ere. Beraz kasu honetan lerratzen da GN hegoaldeko hizkera batzuekin.

Hemen *-aki* nagusitzen da, baina, badira *-akin* morfemadunak ere bai. Ezaugarri hau ekialdeko kutsua duen ezaugarri arkaikoetarik bat da, Caminok dioenez (2003a: 78).

2.5. Kasu destinatiboan, GN hegoalde osoan, euskalki batzuek *-endako* hautatzen dute, bertzeek *-entzat*. Bietatik lehenengoa da eremu honetan aukeratzen dena. Erabilera arruntean *-dako* morfema nagusitzen da: *noendako, aiendako ere, eman biau. Ze erran ote zue neretako. Min gaixto zenbait arrapatu zu nunbait.*

Bestaldetik, genitiboaren morfemaren gain eraikitzen denez, beronek aurkezten dituen bilakabideak erakusten ditu morfema honek ere: *-arendako* > *-aindako* singularrean, eta pluralerako: *semendako, gizonendako*. Izenordeetan, berriz, «*-(r)etako*» da atzizkia.

Zenbaitetan, *-endako* kasua erabiltzen da instrumentalaren ordeaz, edo genitiboaren ordeaz. Ohikoa da GN hegoaldeko eremu guztian: *Presidente da medikuendako. Zer erran ote zue neretako. Aizu, nere andretako ederra zara. Zer erran ote zue neretako.*

2.6. Kasu prolatiboan zenbaitetan *-tik* dugu: ez da markarik agertzen. *Ni kanpero bainindego*. Bertze batzuetan prolatiboaren ordeaz, *norengatik* kasua erabiltzen da, *Nortaz-norengatik?*-Zenbaitetan: *Zeintik yardukitzeun-zu? gizon aengatik... horrela dio ¿De quién hablas? galderari erantzuteko. Ondoko herrian Ilurdotzen, -ren gañan nagusitzen da: zeñein gañan yardukitzen duzu zuk?*

2.7. Instrumentalean, Eguesibarren bezala, gehienetan *-s* da morfema, alegia, apikaria erabiltzen da bizkarkariaren ordez: *denboras (en tiempos)... ermita baze, berris, karrikas-karrikas, erris-erris, egunes ta gabas. Ze, burdineskoa ala zuleskoa?* Honatx Saturninoren *-s* dun adibide gehiago: *polboras, gabas, burdineskoa*. Baina txandaketa adibideak ere badira: *gabaz/gabas*.

Bertzaldetik, *-s* morfema eransten zaio *-teko* atzizkiari: *lan goi ez itekos* eta kausazko *-lakos* ere badugu: *Iten duelakos*.

2.8. Kasu adlatiboan izen berezietan, kontsonantez bukaturikoetan *-a* erantsiz egiten da: *Auritzza, Espotza*. Aditzondoetan *horrara* forma dugu: *Orrara allegatzen delaik*. Eta norabidea adierazteko, *-rata* morfema agertzen da, Erroibarren bezala. Bukaera honek hurbiltze adlatiboaren balioa du, ez *nora*-ren aldaki huts bezala. Antzeko formak agertzen dira Oltzan, Goñin, Elkanon eta aezkeraz: *Eztakit ararata o (sic) o onata nola jua*.

Bertzaldetik, *nora* deklinabidea eskatzen duten esapideak ohikoak dira: *tabernara bildu gizonak. Eskondu aditza ere nora-rekin erabiltzen da: Espotza ezkondu zen batekin? Bida bazirén?, Ezkondu nora?; án atarian, irúzkiara... galtzà'gitén*. «Al sol» esapidean *-ara* forma mugatua nagusitzen da, eta ez mugagabea.

Nora-rekin forma mugatua erabiltzen da: *iruzkiara (mezara joan. Ni nae mezara, Iruzkiara)*. Ez dakigu arkaismoa edo berrikuntza den.

Adberbioetako zerrendetan *onara, orrara, arara* ditugu Elkanon eta Garesen; eta Goñin eta Oltzan *onera, orrera, arera* agertzen dira.

Artzibarren ere honako aditzlagunak ditugu: *arara. Atra zite arara*. Bizidunekin *-tara* mugagabea erabiltzen da: *Nexakiak monjetara... ta mutikuak frailletara*.

Bildu eta ezkondu aditzekin, *nora* morfema erabiltzen da: *tabérnara bildú... gizonak ta, sóbra edanázi. Mizkóizko alába; ezkòndu zé gur'étxera*.

2.9. Inesiboan eta adlatiboan mugagabe falta da deklinabide kasu batzuetan, esaterako, inesiboan: *Faboréz! ta bàdakít... nón daon, zéin étxean dagón*. *Ze urtean sortu zine?* Kasu hauetan, deklinatua dagoen honetan, mugagabea beharrezkoa denean ez dugu mugagaberik. Bertzaldetik, *ura* eta *meza*, izenekin, inesibo mugatua erabiltzen da: *An tzeo urean. Paratu dugu lisue sekatzera* iruzkien, iruzkiera. *Mezara joan. Ni nae mezara*.

Bertzaldetik, *eguzkia* hitzarekin *-ara* forma dugu, ez mugagabeko *-tara*: *ta zenbàit egunés, án alórrean, irúzkiara, sekátzen*. Bukatzeko, *kontuan* forma mugatu inesiboa nagusitzen da eta ez *kontutan*: *karretarak gure kontuan iten dugu*.

Adlatibo bizidunean, *-gana* morfema erabiltzen da: *ni aitengana jua nitza nigarrez, ta aita(t) i(g)orri zira amaingana*. Baina, mugagabea ere nagusitzen da.

Atzizki honen ordez, *ondora* erabiltzen da: *Gizona utzi eta joate al aiz o zazi maztein ondora*.

Azkenik, biziduna behar den batzuetan, *-rengana*, atzizki mugagabe bihurtzen da *-etara*: *tin-tun-ttün- ttün jua men tzire launetara. Baitan ere erabiltzen da bizidun inesiboetan: Nére baitán «Onén óska»*.

2.10. Ablatibo bizigabea *-taik* morfema ohikoa dugu: *hortaik hasi da*. Bertzaldetik, anitzetan azkeneko *-t* desagertzen da: *kanpoti dena ongi goratuik. Ordik atratzen zire*.

Inguru posposizioarekin, *-tik* erabiltzen da: *denak atrioain ingurutik*. Eta baita denbora adierazteko ere: *Gaztetik ze guapoa eta ederra*. Eta modua ere bai, *Gogotik: yan gogotik* (Come con ganas).

Gisa berean, *ondotik* aditzlaguna erabiltzen da denborazko esaldietan, *ondoren-en* ordez. *Hasi ondotik...* Ablatibo bizidunean *-ganik* erabiltzen da: *zenbait zurra artu ze (sic), bai, beganik...*

2.11. Determinatzaileak. Erakusleei bagagozkie, lehenengo graduko erakusle singularrek eta beren deklinatuek ere hartzen dute *g-* kontsonantea hitz hasieran. Goi-nafar hegoalderaino hedatu da kontsonante protetiko hau. Mitxelena (FHV: 247) ekialdeko euskalki hauek kontserbatzaileagotzat ditu, beronen ustez erakusle hauek izenki baten atzetik gordetzen dira, ez baliu anaforikoan doazenean. Erakusleek *g-* protetikoa hartu ohi dute. Joera hau ez da hain bizia Ilurdotzen, baina, indar handikoa da Elkanoko euskarari; Eguesibarren ere *garren, gau* eta horrelakoak agertzen dira. Erroibarren txandaka ageri da.

yakín nón zén... kueba goi
Erdera zikin goi eztut aitu nahi ere (gau, goi, gura)
kusiuzu txakur gure
zelai goi

Bertzaldetik, lehen graduko erakusle pluraletan eta berauen deklinatuetan ere, *hauek > ebek* kontsonantizazioa gertatzen da Erroibarren eta Artzibarren: *Papel ebek, zéndako dugú emén?*, *kauza abek* edatu óngi? Arrietan ere *abek/ ebek* dugu: *ta, orái, abék-ebekí? buélta, yá súa, óla, núnbait atrátzen dén*. Caminok (2003a) *gebek* aldaera ere bildu zuen Artzibarren. Hiriberriko Anbrosiok baieztatzen du joera hau: *erri gebetan*.

Arrietan indartsua da joera hau: *etxe gau, ogi goi* eta, zenbaitetan, *k-* dugu: *kan, korren* aldaerak ditugu, erronkarieraz bezala: *Geró? aziénde oék, kán estrábilera, piénso zerbáit matéko?; biar duéla, korrén medállon bát?*

Eta adberbioetan ere nagusitzen da.

Ez, zu falta gor. Gauza oietaik oaño gelditzen die gor.

Honek adierazten du Artzibarko aldaera honen ekialdeko isuria. Izan ere, Erroibarren baino anitz ere ugariagoak dira *k-/g-* dun hauek, erraterako, *gizon garrek* dugu kasu ergatiboan eta horrelakorik ez baitago inguru horietan: Gisa berean, *gola* ('hola' aditzondoa) *g-* rekin agertzen da: *ertxi gola kajona bezala. bertzénas, gizòn gorrék, éztaike sálba...*, *erdera zikin goi eztut aitu nai ere. Esku goi...*, *denbóra gúti in zué, Arrítan, apéz gurä. Sagar onak du gizon gorrek. Zenbat zaun tzitue gizon garrek, Gizon goi da ona, neska goi artzazie. Nobio goi, etxe gortaik.*

Bertzaldetik, *bida* zenbatzailea agertu zaigu, aezkeraz bezala, baina ez zaigu inon agertu izenaren eskuinean, baizik eta aitzinean ditugun egitura horietan: *bida baziren. Eltze bat edo bida. Bat edo bida gañetik. Bat, bida, hiru... bida etxeko? Ta bertze bida, arrebat badiúu án ezkónduik?* Beraz, Artzibarko aldaeran *bida* forma asimilaziorik gabe gordetzen da.

Bide ohikoa da Erroibarko egituretan. Gaur egun ez dira honelako formak aurkitzen, izenorde zenbatzailean izan ezik: 'dos', *bide* zioten azken hiztunek Mezkitritzen, eta *bira, vida* aldaerak idatzi zituen Saraguetak ere, baina guk ez dugu entzun (Ibarra, 2000: 13).

2.12. Artzibarren *ixil-ixila* moduko aditzondo errepikatuak agertzen dira eta denek mugatzailea hartzen dute. Forma hauek aezkeraz agertzen dira, behenafarreraz, eta Elkanoko Lizarragak erakusten ditu batzuk.

An dago geldi-geldia. Ixil-ixila gelditu ziren. Emen da urbil-urbila. An gelditu ze ixil-ixila. Infèrnura joáin da, zuzén-züzéna. Ixil-ixile gelditu ziren. Ola... Justo-justoa. Zabál-zabála paratú? Laún baték... mántso-mántsoa erábiltzen men tze. Mantso-mantsoa atrako da. Gero babak seko-sekoa bakarrik obenean... Jéje! klaró! orái tzàrtu gerá ta, emén... (e)on biárko, geldí-geldía. Tripako mandamentuak, je zuzen-zuzenak.

2.13. Distributiboan *-ra* morfema banatzailea agertzen da, *-nal-^a*-ren babilio berberarekin: «*seirá duró balio uté edo, zazpíra?... bueno, zazpíra duro*».

Bertzaldetik, esamolde honetan ere, *-ra* da erabiltzen den morfema: *Gutira-gutira: poco a poco*.

2.14. Aditzondo eta izenordeetan, *nion, niola, niok* eta mota honetakoak nagusitzen dira : *niólán e... enié allegatzén*.

Niok izenordaina da erabiliena: *niok eztaki Pedro bezik. Niok eztu ukatu biar o ukatiko ezta erregea ere. Niok etxue jinesten zuk bezala. Niondik ere ezin harrepatu, ezin daike salba niúndik ere! Nundinaendik kartzen tzuzten: 'traían de cualquier lado'.*

Baina, *-bait* motakoak ere ageri dira. *Nondibait dugu: ortán geldít. ixilduko diré? Gáuza oi, arróitü oi. Bueno, nóndipáit eré bildú ta.*

2.15. Zenbatzaile zehaztugabeei dagokienez, *zenbait* izenordaina determinatzaile gisa ageri da, erabilera hau ekialdekoa da bereziki *Bértze aldéko pàretará? Ta zenbáit arrí kèndu nekó... pikúekin*. Mugatzaileei dagokienez, *-tzu* eransten zaio *zenbait* izenordeari.

Zerbait izenordeak mugatzaile bezala funtzionatzen du. Baina, Erroibarrera ere hedatzen da: *Mitin zerbait (=en bat), irin zerbait. Bértze páuso zerbái(t) topàtzen nuén*.

2.16. Hainbat atzizki ikusiko dugu orain. Alde batetik, *-ki* morfemak gaztelaniaz *-mente* ordezkatzan du: *berdín...igualki (igualmente)*. Zenbaitetan *-ki* eta *-ro* atzizkiak elkarrekin joan ohi dira: *eguria iten du ausarkiro*. Bertzaldetik, *-to* atzizki txikigarria ematen du hitz honetan: *Mixkoitzen mitotoak*. Eta *-sko* txikigarria ere bai: *kontesko jua nitza. -ko* atzizki txikigarria ere nagusi da: *nesako, altxurko* 'ai(l)tzur txikia'. Azkenik, *-txe* atzizkia aditzondoei lotzen zaie: *antxeko leo ortara*.

Aditzondoei *-xe* atzizkia erabiltzen da eta baita tartekatutako ondoren ere: *Gero luxegokoak, olaxeraño, denak paratu gelditzen zire olaxe. Bah! Orái ego-sik dago, orái onaxeraño*. Antzeko erabilera ikusten da Erroibarren (Ibarra, 2000: 122).

Nafarroa Garaiko ezaugarria da *-kan* atzizkia, ohiko *-ka* ordeztu duena, eta, nahiz eta Gesalaten, Goñerrian, Oltza zendea, Burundan, Ergoienean, Arakilen eta Basaburuan nagusi izan, ekialdeko Artzibarren ere ageri da kasu honetan. Nahiz Eguesibarren, Erroibarren eta Aezkoan ez den nagusitzen: *amák segídoa mokókoan, ási, mokókan*. (ik. Camino, 2003b: 453). Gisa berean, *-ketan* atzizkia ere bada: *amesketan aitu da bildu du Artolak Arrietan. Hasi aditzarekin -kan morfema ediren dugu: amák segídoa mokókan, ási, mokókan*.

Hogei-ren multiploetan *-tan hogei* forma nagusitzen da: *iruètanogéi urté sorik. Honetan, hauetan-en ordez: Zortzi elibete... ilebete onetan eztut ikusi.*

Posposizioetan *erte* nagusitzen da, GN-ko Elkanon eta Olaibarren ohikoa den bezala; Ultzamaraino luzatuz: *iztar ertera bota men tzeko. Bazire mutxo at* (multzo bat).

3. ADITZ MORFOLOGIA

3.1. Nor aditzaren orainaldiko ekialdeko aditz laguntzaile batzuk agertzen dira, bi hiztunengan. Arrietako Saturninoren ahotan: *gira, niz...: aide gira* Luzaideko batekin solasean ari denean. Izan daiteke hizkuntz egokitzapenaren adibidea. Baina, berzaldetik, 288. adibidean dio, *konten niz, prest gara*. Honenbertzez, BN-ko formen arrastoak edo eragina izan daitezke adibide hauek. *Gira* ere dio Ambrosio Usoz Hiriberrikoak: *andihagocohak guirá* (Artola, 2010: 45), baina hau Behenafarreko eraginarengatik izan daiteke.

Iraganean *nitza* dugu lehen pertsona adizkietan, *-a* morfemaz bukatutako adizkiak Nor saileko «izan» aditzaren iraganeko aldaeretan: *soutsi nitza, sartu nitza, enfadatu nitza*.

Euskal Herriko erdialdeko berrikuntzen eragina da hau, Eguesibarren agertzen dira horiek ere eta Erroibarren, ordea, *-e* erabiltzen da. Bertzaldetik, *izan-egon* aditzen lehia dela eta, *izan* nagusitzen da, nahiz eta *egon* ere badugun: *emen naiz; ya nola diren paperak, emen dire....Bai, konten naiz*.

3.2. Nork adizkieei dagokienez, *edun* adizkietan, orainaldikoetan, hasierako *du-* galtzen da: *Nai zié yakin bai, nai zié...; kusiko zu, Hartzen zu? Nahí *edun* laguntzailearen aditzarekin sorturikoak ere laburtzapenak sortzen dira adizkiaren lehen parte desagertzen da: *naut, nauzie, naute nauzielaik Nauzu pipatu. Etòrri zé gizoná ta:Zé nauk? zé nauk...* Eta *behar* aditzarekin ere bai: *biaut, biautena*. Nor-en adizkietan ere laburdurak sortzen dira: *zarete > zate*.

Pluraleko 2. pertsonaren morfema *-zie* da GN hegoaldekoan bezala: *Aituzié* (aditu duzie), *badakizie, laun tzarazie*. Bertzaldetik, nor-nori-nork erabiltzea, nor-nork-en orde, aspaldian gertaturiko ordezkaketa da. Bonapartek zioenez:

Cést ainsi que *eman zida* s'emploie mnon seulement dans le sens de il me le donna, mais aussi, d'une manière incorrecte, dans celui de *eman nindue* «il me donna» ou «dedit me». Les variétés d'Arce, d'Erro et de Burguete, ainsi que les manuscrits en notre possession ne reconnaissent pas toutefois ces terminatifs à un seul régime, que nous n'avons pas hésité pour cela même à insérer dans ce tableau (Bonaparte, *Opera Omnia Vasconice*: 433).

Eta horrela da gehienetan, N-N-N sistemaren adizkiak nagusitzen dira: «*Ezpadigute uzten soutsiko gara, bánae eskópetaekín tä, il biaut, il biár dizut e*». *Uzten al digute bakarrik, arreñatiko gara, brinkatiko da bai, airo* (agudo). *Anaiak maite dire anitz* (Artola 1), *urtiko da ura, beala ilundiko da. Ni aiten-gana juan nitza nigarrez, ta aita(t) iorri zira amaingana. Nik...nere semea, nik nai dizut; nik nai dizut aunitz...nere semea. Zuk eztirezu nai batre. Ilargiak yo dako. Besteak ikusi ziran bere karakas artara!*

Baina, guti badira ere, testigantza batzuk ageri dira: (Nork-nor) *ematen al nute Kaliforniara berriz, osatuko zaitut* (te castraré); *barkatuko zaitut; iltzen*

zaitut edo il biar dizut? Bertzenaz zuk illen dirazu. Yrizarrek ere biltzen ditu adibide bakan batzuk: *gaituzte, zaitute, zaiztugu, zaiztee* (ik. Yrizar, 1992: 127), eta baita Auritzen ere: *ikusi nau* (Echaide, 1989: 392); gaineratzekoetan, *ikusi dire, diguzie* erabiltzen dira eskuarki.

Behar bada, GN ekialdeko aldaera honetan bizitasun pixka bat gehiago izan zuten, nahiz txandaketa adibideak ugariak diren. Bukatzeko, *izan /edun* lehia dela eta, zenbaitetan *edun* aditza, *izan*-en ordeztuz agertzen da, gisa hone-tako esaldietan: *Merendu oi noendako duzu?*

3.3. Pluralgilean *t-* soila dugu, busti gabe *dugu > tugu* da plurala: *izen tugu mutiko anitz*. Goinafarrerako Esteribarren eta Anuen ohikoa denez: *izen tugu mutiko aunitz*. *Ya papel ebek arreglatzen tugun*. *Non tozu gure ollaskoein diruak*.

Hasierako morfemez den bezainbatean, interesgarria da azpimarratzea bustidurarik gabe erabiltzen dela ia eremu osoan. Elkanon, Bonaparteren datuak aztertzen baditugu (ik. Ondarra, 1982), hitz hasieran *t-* da ohiko pluralgilea: *tiot, tiozu, tioze, tiote*, eta bokal artean dagoenean *-it-*: *zitiok, zition, ditiau* etab; berauetan ez da bustiduraren arrastorik gelditzen. Elkanoko Lizarragaren testuetan agertzen da eredu berritzaile hau, alegia, *-zki-* > *-it-* aldaketa eragin duena.

Nolanahi dela ere, *-zki* ageri da batzuetan horren lekuan: *dizki*. Horrelako burutzapenak aurkitzen ditugu Erroibarren ere. Bertzaldetik, N-N-N sistemaren pluralgilea *-tx-*, *-tz-* da: (niri: *txira* pluralean) *erran tzira ya bronkitis ximplea baduzu*. *Man txira hainbat pastilla*. *Ta aita(t) i(g)orri zira amaingana*. *Lau ballena paragosakoak intxute alako asots bat*.

Azkenik, bertze pluralgile bat eriden dugu, *-z-* da *eduki* aditzean: *onek diru handiak badazka*.

3.4. Jakina denez, nork-nori nor adizkietan, singularreko nahiz pluraleko adizki laguntzaileen morfemak nori-ren hirugarren pertsonan *-ako*, *-eko*, *-akote* dira: *-akote* gisakoak hauek dira: *Eman tzako kargat ederra; badakizu ze erran dakozun fraile orri? Man tzeko; erran tzekon; errain dakotet; buru-buruan emain dakot!; batei erraten men tzeko; erran zekó alábai; yo nekon perdigon bat; erran neko; peztat emain dakot; Mandoa kendu zekoten ta adios*.

Hiriberrin ere gauza bera gertatzen da: *begi onduan, arrepa tzekon begia*. *Igorri nekon*. *Mandoa kendu zekoten ta adios!*

Aipaturiko forma hauek, gehiago edo gutxiago, honako haranetan hedatzen dira: Auritzen, Artzibarren eta Erroibarren (Esteribarren, eta Erro hegoaldekoan izan ezik). Olaibarko eta Eguesibarko barietateak hauetatik aldentzen dira. Honenbertzez, ezaugarri honetan gehiago lotzen da Erroibarrekin eta aldentzen da Eguesibartik eta Esteribartik, Ilurdotzen *-io-* motakoak agertzen baitira. Egia da Nor-nori-nork aditz saileko forma hauek mende batzuk lehenago bazirela Nafarroa Garaian, baina horrek ez du ziurtatzen aldaerak zaharrak izatea (cf: Camino, 2003: 142).

Nork-nori-nor-en gainerako formei dagokienez, azpimarratu behar da *Niri* adizkietan: lehenengo pertsonari dagokion morfema *-r-* izan ohi dela. Erroko eta Esteribarko hizkeretan *-r-* da ohiko morfema, baina Artzibarren *-dal-ra-* dunak ditugu (dira, zaira, zeira...) eta Erroibarren *-re/de-* dunak (*dire, zaire*): *Etxean au pastu zaira: laun tzarazie (lagun iezaidazue)*. *Zuk nekatzen dirazu jardukian*. *Ongi pagatu dira...* (dit) 'me ha hecho pagar bien la ven-

ganza'. *Nere ana...arek mokoka einen dira. Agartu zeira. Nik ezttu yaten... etxaket yan, zegatik gaixki iten dira.*

3.5. Nor-nori aditzean ere agertzen da *-eko-* morfema: *kaparra sartu zizeko*. Baina, bertzaldetik *-tza-* erroaren orde, *-ki-* artizkia dugu, GN hegoaldean bezala: *erreka sartu zekidan. Joaten zekion.*

Adizki laguntzaileak egiteko erabiltzen den *-ki-* hau Erroibarren, Esteribarren, Egozkuen, Artzibarren, Olaibarren eta Elkanon agertzen da, txandaketaz bada ere.

3.6. Goinafarrera hegoaldekoaren eta iparraldekoaren arteko muga Lizasoko barietatean ezarri zuen Bonapartek; beronen ustez, goi-nafarrera hegoaldekoaren berezitasun bat lehen aldiko aditz laguntzaileetako *-n* ren desagertzea zen.

Gauregun, Erron eta Esteribarren hiztun zaharrek, *-n* gabeko formak erabiltzen dituzte gehienetan. Eguesibarren, Lizarragaren testuetan, eta baita Bonapartek emandakoetan ere (ik. Bonaparte: Opera): *shayo zere, erre zere, eman zute*. Artzibarren ere ohikoak dira *-n* gabekoak: *batei erraten men tzeko; erran zekó alábai; yo nekon perdigon bat, erran neko, kaparra sartu zizeko, etzatie, eman tzeko, juan tze, nue, hasi ze joan gine, yardukitzen zue*, baina ez da sistematikoa: *Anakin, ezkondu ze, soutsu nitza...* (ik. Artola, 1992) eta (Yrizar, 1992).

3.7. Aditz batzuen erabilera azpimarratu behar da, erraterako, 'erabili', 'ibili' zentzua duena: *ze pasten da emen, non erabil zara? Joan paradigmán, etorri aditzaren forma trinkoak aginterazko adizkian erabiltzen dira, eta heldu izan gainerakoendako. Horrela, yo vengo... ni heldu naiz; heldu dire elkarrekin; ik eta nik eldu gara, ta juain gara biar.*

Joan-en paradigmakoak hauek dira: *zazi segidoan Iruñera. Dazila emendik, baten gañean paratu ta ya, daela nai duen lekura. Joan aditzaren aginteran g- protetikoa dago: goaie gaba pastera; goaé, non... nón daon; Goaie goatzera. Hiketa singularreko bigarren pertsonan g- dugu aditzaren hasieran: nora goae?*

3.8. Aginteran, aditz sintetikoak ugariak dira, *egon* aditzarekin: *zaude ixilik!, zauzte ixtan pat! Xaude! etorri* eta *joan* aditzekin: *Atoste!, datorla medikua; Mutxiko txár oék...atózkida segídoa!*

Bertzaldetik, *ekarri* aditzarekin, sintetikoa ageri da: *Mutikua, Karrak el-tzea!*, aginteran, *-r-* desagertzen da: *katsu potta!* 'ekarri muxua'. Orainaldian ere *dakarrat* da erabiltzen den aditz sintetikoa, txandakan ageri bada ere: *aiteindako ekartzeunt* eta *aiteindako dakarrat*. Bi forma hauek erabili dira; beraz, adizki honen bizitasunaz mintzo da hau.

Aditz trinkoen iraganaldian lehen aldian *-e/-a-* lehia dago: *banaki* (Si supiera), *lenatoik banakien nik, enakin*. GN hegoaldean ohikoa den bezala.

Lehen aldian *-a-* dugu-: *mazteak bazakie gizon gizeitsua zela. Egon aditzaren lehen aldian, -nd- morfema da ohikoa: olaxe nindeon. Kanpero bainindego.*

Joan aditzarekin *g-* protetikoa dago: *goaie...* Eta iraganaldian *bazazin 'bazihoazen'*. Alegia, *-i* bukaera dute: *joan* aditzaren orainaldi sintetiko batzuek: *Oianera goazi*. Erroibarren ere *zazi* (*zoaz*) erraten da. Bertzaldetik, yod gabekoak badira *joan* aditzen oraineko aldaera sintetikoetan: *orai non dae?*

3.9. Gonafarreran ohikoa den bezala, *behar* + aditz nagusia hurrenkera agertzen da GN hegoaldekoan ohikoa den bezala, eta baita aezkeraz ere: *behar duela gizona entregatu bere anima? behar dirazu entregatu neri; lau sorik biar dugu saldu; behar tzuten eskuekin arrepatu, Orántza; oróntza ói... bear dú úr béro ortán, edérki desìn; Orái bear dugu bueltat eman, ikatza atratzen. Norek behar du yasan, ari su ereman eta erretzen brasa. Kajonak biar tzue ondoi kabe. Bai, bai bear duzu ta kura in.*

3.10. Ahalera orainaldian *-tzen ahal* forma erabiltzen da orainaldian: *bialtxèn al dirá; entregàtzen al dirá; uzten al digute.*

Kasu batzuetan, ahalera erabiltzen da agindu bat eman nahi duzunean, gaitasun edo posibilitatea adierazteko, nolabait kortesia adierazteko erabiltzen da, nahiz eta zentzua aginterakoa izan. Horrela, bi formak agertzen dira, sintetikoa eta perifrastikoa: *ekarri + ahal*. Horrelako esaldi anitz aurkitu ditugu: *Pedroin txamarreta kartzen al duk!* (tráeme la chaqueta de Pedro). *Gizonak utzi ta joaten al aiz o zazi mazteín ondora. Gero mazteari eman zozute bertze ogi bat o ematen al dakotek bertze ogi bat. Kartzen al duzu* (=Ekar ezazu esanahiarekin), *eztaikela yan* (Que no se puede comer). *Sekatzén al duzu, trapu orrekin* (lo puedes secar). *Trankil eoten al zara. Joaten al tzara segidoan Iruñera. Ospitalera* (=zoaz). *Istan paten buruan.*

Bertzaldetik, 'No poder' itzultzeko: *enaíke edo etxaket* erraten da, ez da «ezin» aditza erabiltzen. Ahaleran *-du* aditz osoa erabiltzen da laguntzaile sintetikoarekin: *Ordu bates elleatu daike. Etzake...iraun, ezta...ene anaea ta ene aita.* Gisa berean, *ezin* aditza partizipio eta aditz laguntzailerik gabe erabiltzen da: *ezin konprenitu; denbora ezin pastu; ezin bilatu gero; ezin atra; niundik ere ezin lastu; ezin miratus zentzu gabe, obenean.*

3.11. Baldintzakoetan **edin* erroarekin osaturikoak *baledi* sailekoak agertzen dira: *ojala balekatu bilatu baledi.* Eta baita *ezan* aditz laguntzailearekin osatutakoa ere: *Nik edan baneza ere, edan banezake gauze ura, il...ilko nue* (176 gald. Si yo hubiera bebido aquello me habrá muerto) *Kus baneza, o kus banu argia ...* (Si hubiera visto la luz...).

Lizarraga Elkanokoaren idazkietan, baldintzazkoetan ere usu agertzen dira gisa honetakoak: *sandubenaza, salbabaneza.* Baldintzazkoan, lehen aldikoan, apodasian ahaleraren formadunak aurkitu ditugu: *Ze? Galdu banue pezta ura, Jesus! Ze mokokak! Nik egon banitza etxean, ez zue...enezaken utzi...erretzera, ez.*

3.12. Etxamendiren ahotan, hitanoaren adizkiak agertzen zaizkigu. Amaren ahotan jarririko hitzetan aurrenik tokako era, eta ondoren, nokakoa agertzen dira.

- «etzakéla lán txárroak ín!... utzán gori, utzán gori!»
- «Nók ín dik? nók ín dik?», da - «Nór, nere búru!»? (Yo misma)
- Goai ekarrak eztakit azukrea.
- Korren medallon bat.

Hiriberriko hiztunak ere hitanoaren formak ematen ditu: *Karrak ogie, kar bez, karran* eta aitarekin berorika egiten duela dio. Iraganean forma bereziak erabiltzen ditu Ambrosio Usozek, BN-ren eraginarengatik ziurrenik, hauek ez dira Saturninoren ahotan entzuten: *Atxiki nitin, arrepatu nitin, prokuratzen gindin, bildu nitin, karri behar tzin. Karri bear tzin. Arrimatzen bazi-*

ni...ortara? (Artola, 2010: 17). Honatx, *utzi* aditzekoak: *utzaran, utzaran geldik! Maite diat, ik eztirak batere maite* bezalako formek nork-nori-nor aditz sistema islatzen dute, eta, aldi berean, hitanoaren bizitasuna ikusten da.

3.13. ‘Elkar’ izenorde erreziprokoa erabili beharrean, ez da erabiltzen eta horren ordeztu Nor aditza nagusitzen da: *biar kusiko gara. ‘Bere burue’* ere ez da ageri, honatx adibideak: *gizon garek il tze bere kontuan* edo *niretako ‘erran’*: *Errateunt neretako (digo para mi). Anaeak maite dire anitz. Kusi nitzan* (Me ví). Bertzaldetik, *yarduki* aditza iragangaitza da: *yardukitzen naiz aisa*.

Lehen aldiko Nork eta nor adizkietan *-nd-* morfema taldea agertzen da, GN hegoaldean ohikoa den bezala: *hasi zinduela, erraten zindue... ze gustoa yan gindue. Je! así gindá, aldàpa artán, lepótik artú ta, erréstan, Sautáraño: merezi zinduke. Je! así gindá, aldàpa artán, lepótik artú ta, erréstan, Sautáraño*.

3.14. GN hegoaldekoan, aditzetan *-t(z)en* partizipio bugatugabea + *d-z* hasitako aditz laguntzaileak elkartzekoan, metatesiak sortu ohi dira, Artzibarren hauek biltzen ditu Artolak: *errateunte, ineunt, garbitzeunt, atratzteunt* (Artola, 1992: 211, 212), *gustora ineunt, errateunte alkatea izain zarella...* Nahiz batzuetan erabat sistematikoa ez den: *eskuak garbitzeunt eta eskuak garbitzen tut* Erroibarren ere arruntak dira: *konpontzeu(n)te, gastatzeunzu, konpontzeu(n)te* gisakoak.

Bonapartek ere GN hegoalde osoan honako formak bildu zituen: *segun errateuntenes* Elkano, Oltza eta Goñirako. Erran bezala, Elkanon *sataunte* bezalakoak badira. Ezaugarri honetan, bada, Eguesibarrek Erroibarrekin bat egiten du.

3.15. Jakina denez, aditzoinaren erabilera handiagoa da zenbat eta men-debalderago joan. Ekialdean maizago erabiltzen da aditz erroa eta Artzibarren kasu batzuk badira: *Ordi- behar du: tiene que hervir. Arrepa- tze kon begia. Eztaike sálba...*

Nolanahi dela ere, *-du-*rekin osatutako partizipioak erdialdeko euskalkietan sortzen diren berrikuntzak (izandu, egondu) agertzen dira Arrietan eta Ilurdotzen: *eskindu zio yatera dugu Ilurdotzen eta atertu du; eta igentu zitue eskale guziek. Emen eondu naiz*.

3.16. Aezkoan bezala, datiboaren erlatibo jokatugabea ageri da. Batzuetan *-(r)ikako* atzizkiaren erabilera ekialdeko eremu zabaleko ezaugarria da: *Arrepatuikako ardia. -ikako: beharrikako gauzak in behar dire*. Eta bertzeetan, aditz partizipio hutsarekin erabiltzen da: *tabernara bildu gizonak*.

Beharrik adberbioa *-n* morfemarekin betetzen da: *Bearrik erran duzun; beharrik beldurra etzen sartu*.

Partizipioari dagokionez, *-ik* bukaera nagusitzen da. *Oiek paratu, labeko atarian ola pixkat atraik kanpora... Jostatu aditzak Nor erregimena dauka: juntatu ta... yostatzen zire*.

4. SINTAXIA

4.1. *Izena + bat, batzuk* + adjetiboaren egitura. Arrietako euskaran, ekialdeko zenbait mintzamoldetan agertzen den bezala, izenlaguna zenbatzailearen eskuin aldera igarotzen da; honela, *gizon bat ona* motako adibideak aurki ditzakegu. Berezitasuna da izenondoa zenbatzailearen atzetik agertzea eta ez izenaren ondoan. Oso ugaria da egitura hau eta anitzetan aurkitzen dugu

Saturninoren ahotan; Ilurdotzen, ordea, bilakabide hau ez da hain usu agertzen; honenbertzez, alde zenbait badira. Honatx ba, ekialdeko lotura, baita aezkeraz ere.

Askatasuna dago ekialdeko euskalkietan izenondoa eta zenbatzailea agertzeko izen sintagmetan. Goinafarreraz ere agertzen da Erroko testu zaharretan (Satrustegui, 1987: 265): *Ceiñ izain da Christau iduquico eztiona irreverencia bat eta errespetu bat andia?*

Honelakoak arruntak eta arauzkoak dira: «*emán tzakó karg'át ederra. Asealdi bat ederra in biar dugu. Kántu batzúk háin pólitak! Baze lenao banko-an yarralkin bat ya, ederra. Ebáki èzpel bát? gaitza ta, garbitu...Aló, prestátzen al dúk, pil'át ederra?*». *Zakúr bat fiárra. Inén dugu eultzí bát ederra. Artú trank'át lúzea ta. Egur bat ona, garbia. Afari bat ederra. Tortilla bat gaitza bil-tzen zen. Makil batzuk polítak. Monton bat gaitza.*

Izena + izenlaguna ordenaren adibideren bat badugu: *Eskopeta pixtoneko baginue.*

Bertzaldetik, honako adibideak aurkitu ditugu, adjektiboa + izena egitura daukatenak: *gaixo mutikoa, gaixo gizona* (pobre chico).

4.2. Nork-nori-nor aditz formetan, Nori izen sintagma eta nor-en arteko komunztadura egiten da usuenik eta aditz laguntzaileetan islatzen da. Baina euskaraz aipaturiko komunztadura ez da beti betetzen, datiboren morfema agertzen da, baina aditzean ez da hori islatzen: *Almute bat kentzen zute lakaia. Denei launtzen duzu atratzen. Noendako, aiendako ere, eman biau; guri bur-la iten ai dire. Ozkitten du deneri. Estadoai, zenbat millones...egun ta berregun millonak pagatzen dugu urtean. Juana Mari Guxi burla eiten ari dire. Ala nóla barkátzen dugún gúk dugún prójimoái. Dirua iten du abratsak gizonai. Ikusi zute mazteai; mazteak ikusi zute gizonai.* Ezaugarri hau Artzibarren, Erroibarren eta Elkanon arrunta da, baita Baztaneraz eta erronkariez ere.

Baina beste batzuetan, kasu gutienetan, nori-dun formak agertzen dira aditz laguntzaileetan: *Arrapatu zeko mazte orri. Gizonak ikusi dakote mazteai.*

4.3. Muga adlatiboan, *-raino* morfemak markatzen du ibilaldi baten azken muga. Ohiko erabileraz gain, denboraren muga adierazten du. Denbora adierazteko orduekin erabiltzen da: *Atsaldeko borzetaraño.* Bertzaldetik, aditz-izen deklinatuarekin ere agertzen zaigu, *-tzeraino* egiturarekin: *Gero pareta iten? Arginekin? Ta sartzeraño.*

4.4. Beste egitura batzuetan nominalizazio espero genuenean, alegia, *hobe* + *-tzea* egitura horren ordez, partizipioa ageri da: *Hobe dut ez edan nik. Hobe tripak eta moztu.* Baina, bertze batzuetan nominalizazioa nagusitzen da, erraterako kasu absolutiboan *-tzerik: ézta barkátzeik.*

Partizipioaren erabilera oparoa da, aditz laguntzailerik gabe; horrela, hauen elipsia eginez, arinago egiten da diskurtsoa: *ba txerria il dugu egun ebetan, ta sobra tripota yan ta, katarroa mogitu neri...* Aditzaren elipsia dago kasu honetan ere. «Sin llegar a dos horas»: *Bi ordu gabe exeko pareta guziak deseñik.*

4.5. *Utzi* aditzarekin *-tzera* nominalizazioa egiten da Hego Goinafarreran bezala, hori dela eta hauek ditugu: *trebe izan...yardukitzera; utzi zue atzen-tzera; ni enaiz trebe yardukitzera; geró, ala-ála útzi... atzèntzerá?; eztaute utzi-ko pastera.* Baina, 'Dejar de...' *utzi* aditzarekin eraikia, inesiboarekin egiten da: *etzue uzten lanean, lana iten.*

-Tzera nominalizazio nagusitzen da hainbat aditzekin, erraterako, *eman-ekin*: *eman dire yatera eta edatera. Bazkaltzera main txekola*. Baita *menturatu*-rekin ere. *Ezin menturatu sartzera*. Gauza bera gertatzen da *trebe* izan aditzarekin: *Enaiz trebe yardukitzera*.

Partizipioari dagokionez, *-ik* da erabiltzen den morfema, GN osoan gertatzen den bezala *-tuik*: *andagatui zego*. *-an* izan: *Ezarrian ziren ugaldean lantxatekin. Ixil-ixilian geiltu ziren denak. Aitzia zerbait 'de haber oído algo'*.

4.6. *Uste...-n*. Konpletiboen sailean, esaldi nagusia baiezkua denean *-(e)la* da erabiltzen den morfema, *uste* aditzarekin izan ezik, honekin *-n* morfema da nagusitzen dena, GN hegoaldean bezala. Erroibarren: *nik uste dan* (Ureta EAEL 209. grab.), Mezkitzen ere: *nik uste hilen naizen ere*, eta Artzibarren: *nik uste hori den kontua. Nik uste an dagon. Nik uste ez tiren len bezala atratzen. Nik uste hori den kontua*.

Biarrik...-n egitura ere badago, erdal 'más vale'-ren kidekoa: *Biarrik eskuan daukazien gurutze oiek. Bearrik erran duzun; beharrik beldurra etzen sartu*.

4.7. Hipotetikoan *banitz* formaren orde, *banintza* dugu, *-a*-rekin. *Nik egon banitza etxean, enezaken utzi erretzera ez*. Iraganean antzeko adizkiak aurkitu ditugu guk, *-a*-dunak: *niza, iza* 'hintzen' eta horrelako formak txistukari, igurzka-ri bizkarkariarekin agertzen ziren Garesen, Eguesibarren eta Oltzan.

Ezperen lokailua 'bertzela'-ren parekoa da, 'en caso contrario' erdaraz, baldintzazko kutsua du, aurreko perpausuan gertatutakoa bete ezik, zer gertatuko den adieraziz. Lokailu hau arrunta da erronkarietaz eta zubereraz. Honatx adibide batzuk: *Despeitzen du onek...berotasun ori, ezperen emen eztaike bizi, je otzaeki! Mogimendu arekin salbatu men tzen, ezperen ez bazen geldik... ittoko in tzin. Bakotxak berea ematen zin ta ezperen...ba sosa bazen an, izaten tzen bai bazkaria*.

4.8. Denborazko esaldietan *-larik*, *-lai* morfemarekin osaturikoak nabarmentzen dira GNafarreran, Eguesibarren eta Goñibarren: *Eskápu daélai. Emén gelditu zé, eztákit nik, ník usté Esnótzen. Nauzielaik presta dago, merendoa, andik béiti astén delái... itzála*.

4.9. Kausazko esaldietan *bait*-nagusitzen da. GN hegoalde osoan oso hedatua dago egitura hau. Beronetaz baliatzen ez diren euskalkiak bizkaiera eta gipuzkera direla erantsiz. *Ah, pentsatu zuen haren aitaz galdegin zekola, ezta? Klaró, egilea báizen. Erretzen baitut...baña nasiik* (porque fumo). *Ni kanpero bainindegó. Eztaki iñor. Airian baitaude. Baitire or*.

Batzuetan, *zergatik* + *bait* erabiltzen da: *Zergatik bero baitzen. Konten dire zengatik Jangoikua kusi zutelakos. Enaiz juain xengatik zuk ein baituzu. Nolanahi ere, -lakos morfema agertzen da bakanka: beroa iten duelakos*.

4.10. *Anitz* + izena eta izena + *anitz* hurrenkera arrunta da. Erabilera hau Erroibarren ere gertatzen da: *Aldi anitz erran dut nik. Anitz apezak izan dire mezan. Aur anitz izan dugu*.

Anitz aldiz. Horrez gainera, *Anitz* aditzondoa pluraleko markarekin ager daiteke aezkeraz agertzen den bezala: *Anitz apezak izan dire mezan. Oyan artan badire anitz erleak. Emen anitx oianak dire*.

Bertzaldetik, ekialdeko euskalkietan, aezkera, eta erronkarietaz bezala, *oso* edo *biziki*-ren pareko da *anitz*: *Zapetak zabal, aniz zabal dauket. Graduatzailen artean, gorki aipatu behar da, oso-ren parekoa. Au de gorki gaixtoa*.

4.11. Esaldia parekatzeko morfema *-agoko* da: *ordu*en ya *etzute yagoko urik botatzen*. Ezik partikula ‘salbu’ esapidearen baliokidea da. *Zu ezik, bertzeak yai ere, jai ere*. ‘Quitando tú, los demás nada’. *Bai, ezta bat ezik, bat, mutiko bat*.

Bertze modu batzuk ere zabaltzen dira, baina, hau ere bai. Esaldia konparatiboetan ere erabiltzen da: *Ene gezurra, naiago zila ezik bere... bere...egiak?*

Aditz esapide batzuk merezi dute nabarmentzea. Erraterako, *gaitzera eman: denbora gaitzera eman du. Denbora txartu de*. Bertzaldetik, *llamarse* aditzaren kide gisa ‘deitu’ aditza erabiltzen da eta ez «Nola zaizu, edo zaio?» esperatzekoa dena: *Sautako nesako oe erran men tzeko: Nola deitzen zara zu?*

Esaldi kontzesiboetan *alta* aditzondoa agertzen zaigu, *alta: alta zerbait pastu da*. Erroibarren ere gutitan aditu dugu, baina gure liburuan behin eka-ri genuen (Ibarra, 2000: 212) Mezkirizko hiztun bati entzuna.

4.12. Osagarri zuzena genitiboan erakusten duten adibide bakan batzuk daude Artzibarren. Jakina denez, ekialdeko euskalkietan aditz izenen objektu zuzen diren izenak, genitiboan ezarri ohi dira, eta ez absolutiboan, men-debaldeko euskalkietan bezala. Genitiboaren erabilpen hau, gaur egun ekialdeko euskalkien berezitasuntzat jotzen bada ere, ezaguna zen bizkaiera zaharrean eta baita gipuzkera zaharrean ere.

Elkanon, Ezkabarten, Esteribarren eta Erroibarren txandaketaz betetzen den fenomeno da. Artzibarko Hiriberrin bildu du Aranek esaldiren bat: *eleketan (sei emakume torri dire eleketan iteko)*. Hori agertzen da zenbaitetan, ez da fenomeno sistematikoa: *ukurtu reberentzian iteko*. Gainerakoetan ez da agertzen. Kasu batzuetan, bezala-rekin genitiboa erabiltzen da: «*Bah!amábortz egúnes... gurekín... egón bazirá? berdín guré bezála yardúkitz-, yardúkitzen iz*».

5. HIZTEGIA

Honatz elkarrizketa hauetatik ateratako hiztegi eta onomatopeia garrantzitsuenak. Gure transkribaketan Artolak jarririko azentuak ezabatu ditugu.

Abarrikatu: hautsi, purrukatu ‘descargar de un golpe, destrozar’. *Dena abarrikatu eultzia larrañean?*

Agiro o **áiro:** agudo, laster ‘rápido’. *Iardukitzen zue.*

Ago: ahoa ‘boca’. *Gero zenbait egunes urrin goi ezin kendu agotik.*

Aisa: aise ‘fácil’. *Aisa da.*

Akulus: akulus ‘juego entre niños, a darse patadas en el culo’. *Artu beso batetik ta zango batetik mutiko bat eta beste mutiko batek eta bear diren eran ta yo ipurdiekin.*

Alatu: alea atera ‘desgranar’. *Aotza, larriána; gero, bertzea?... alátzen dá olá, fila.*

Alegera: poza ‘alegría’. *Dena alegera.*

Alke: lotsa ‘vergüenza’. *Ni ez naiz alketzen. Egia errateko, ezta alkatzen.*

Alkin: aulki ‘silla’. *Emén, álkin txar bát? xaskítóá irúkitzekó?*

Alkitz: alkitza ‘podadera’. *Alkitzeki edo eitara egiteki, oekin ebaki ta dena ongi plegatuik? Olaxeko paxua?*

Alo!, ale!: mugi zaitez! ‘venga! Grito de de ánimo, de comienzo de una actividad’. *Alo zazi segidoan!*

Alportxa: alfortxa, poltsa ‘alforja’. *Asto at, artu? alportxa aundiekí?*

Altxatu: ezkutatu ‘esconder’. *Iriberrira, tesoro at bazela altxatuik alor, alako lekuan...*

Altxinarru: bizkarlarru ‘espaldero’. *Artzaiak, juaten tzire, mezara? eguer-*

diko... o gaberdiko mezan? justo-justo oroitzen naiz, artzaiak, juäten tzire, mezara? eguerdiko... o gaberdiko mezan? Altxinàrruekin ta... ¿cómo le llaman al zamarro? zamarruak?

Altxurko: ailtxur txikia ‘azada pequeña’.

Alur: alor ‘campo de siembra’. *Alurra ematen badirak? neretako, nere kontura geiltzen da dena.*

Ameka: hamaika ‘once’.

Amen: amen ‘bocado’. *Nik artu nuen àmen bāt... Beala tostutzen da... atra ta lenbiziko amenak, tortein amenak, gero ogiak ere artu palaki.*

Andaitz: lema ‘timón’. *Karroko andaitza (el timón).*

Andegatu: andeatu ‘echarse a perder, deteriorarse’. BN-ko hitza da. *Sukalde guzia artzen zuen... ya andegatuik zeo.*

Anisatu: anisa ‘anís’. *Kafe bakarrik, Anisatu, anixa..tu txortat.*

Antxoa: Aintzioa, Erroibarko herria.

Apa: muxua ‘beso’. *Apa ematera.*

Apaldu: zapaldu ‘aplastar, reducir, menguar’. *Bai, apaldu dena sua daela beiti.*

Apitxi: aitatxi, aitona ‘abuelo’. *Apitxi guatzian dago.*

Arbole: zuhaitza ‘árbol’. *Arbolia... bai, arbolea; aritza ta bagoa.*

Arno: ardoa ‘vino’.

Arrae: amorraia ‘trucha’. *Aren etxean eztute arrae bat ikusi.*

Arrail: arraila ‘raja de madera’. *Akabatzen direlaik arrallak.*

Arrañatu: konpondu, moldatu ‘arreglar, apañar’. *Arri bateki; arriak ere, denak ongi..bilduik? bueno arrañatuik?*

Arrapa, arropa: jantziak ‘ropa’. *Aituzu! kartzu... arrapa bat, beztítzeko. Gero maztekien arreak hartu ta.*

Arras: erabat ‘del todo’. *Azkeneko ilundu zuen, baña arraas! Arras gaizto.*

Arratio: arratoi ‘rata’. *Arratio ziloak badire.*

Arreñatu, arrañatu: moldatu ‘arreglar, componer’. *Arreñatiko gara arri pareta... arri aundi aiek, ekendu, eskin-arriak. Arrañatu gara.*

Arreo: ‘de manera continua, sin interrupción, ¡Al arreo!’.

Hiru egunetz «al arreo». Erdal hitza da, Iribarrenek dakar: Es capaz de comerse cinco guindillas al arreo. Corella.

Arriantonia: lore baten izena ‘nombre de cierta flor’.

Arrikoaldiko, aitixkoaldiko: harrika ‘a pedradas’. *Iriberrikoak tortzen tzire, ta gu gibeltik aitixkoaldikoa, arrikoaldikoa.*

Arroitu, garroitu: soinua ‘ruido, grito’.

Arrosi: aharrausi ‘bostezo’.

Arroitu: zarata, soinua ‘ruido’. *Hartu faleak ta karriketean arroituka.*

Artzattu: asmatu ‘acertar’. *Eztire artzatzen.*

Artzuri: sai zuri ‘alimoche’. *An utzi ta, tzakurrak eta... artzuriak, denak! joaten ziré yatera./ jo! ar(t)zuri aundi bat pastu ze urbil.*

Asots: soinua, zarata ‘ruido’. *Ta elurra, karroa iten tzue asotsa.*

Atxiki: gorde ‘recoger’. *Ardiak ezin atxiki.*

Aufer: alferra ‘vago’.

Ausarki: ugari ‘abundantemente’. *Ausarki, dentik badugu. Gizonak ausarki dire herri hontan.*

Ausarkiro: abundantemente ‘emari handikoa, ausarki’. *Hiru egun ebetan eguria iten du ausarkiro.*

Auznabar: ausnartu ‘remugar’. *Beia aitzen da auznabarrean.*

Azematu: konturatu ‘darse cuenta’. *Kuartelera... Obenian gu azemauike oartzen baute.*

Azkonarro: azkonarro ‘tejón’.

Aztatu: asmatu ‘acertar’. *To! ipurdia paratiko diat, ez tirak... aztaatzten, tiro at, tiro atez Elkanoko hitza ere bada.*

Baitan: baitan ‘en ...’. *Nere baitan «Onen oska».*

Baldeartze: Artzibar ‘Valle de Arce’. *Baldeartzen badela pestea*. Bertze momentu batean *Artzi* dio, baina erdara nagusitzen da; bistan denez, Balderro.

Balin ba!: baldin ba ‘¿cómo no!’. *Baña maztekoa, badakizu ze erran dakozun fraile orri? Balin ba, ongi erran al dakot.*

Baratu: gelditu ‘parar’. *Baratu de aizia.*

Barride: auzokide ‘vecino’. *Juan dire emendeko... barride untakoak!*

Basatxipu, basatxopo: txipua ‘chopo’. *Nik uste tzipua, basatxipua den.*

Bateo: bataio ‘bautizo’.

Belaunikotz: belauniko ‘de rodillas’.

Berant: berandu ‘tarde’.

Bere kontura hil: bere burua hil ‘suicidarse’. *Gizon arek hil zen bere kontura.*

Bidemunian: biharamonian ‘al día siguiente’. *Bidemunian jua txire.*

Bikor: alea ‘grano de trigo’. *Pikatu? dena, abarrrikatu, aotza bai, eta garbi-garbia... urrea bezala biltzen tzen bikorra, bai.*

Bilua: ilea ‘pelo’.

Biurrustaka: ‘burrustan’ (BN) onomat. En gran cantidad. Profusión en el derrame de granos, gasto de dinero’. *Euria biurrustaka ta bixkarra ongi bustik.*

Botrino: amorraina ‘trucha, botrino’.

Butzu: putzua ‘poz’. *Erreka zenbait do butzu zenbait bai mentze.*

Buzkar: puzker ‘pedo, ventosidad’. *Buzkar bat.*

Despeitu: agurtu ‘despedir’. *Despéitzeán...*

Doike: dudarik gabe ‘sin duda’. *Doike neska goi artzazie.*

Dilindan, dilingan: zintzilik ‘colgando’.

Doniane: Donibane ‘San Juan’. *Bersolari onen anena Juan Etxamendi Donianen.*

Edatu: barreatu ‘barrear, extender’.

Egu, egun: egun, gaur ‘hoy’. *Egu ere torri dire, emen. Egun makurrago, atzo baño makureago, orai.*

Egurri: eguberri ‘Navidad’. *Egurrian nik ere asi nitzan fiarki.*

Egurtu: egur batekin jo ‘pegar con una madera’. *An, arrápatu züté, ta makillikoaldíkal... egúrtu zuten, egúrtu zuten.*

Ekendu: quitar ‘kendu’. *Bai-bai, kaso inen dugu. Bueno, eskínara juán, ándik eré, ekéndu.*

Eleketan: mintzatzen ‘hablando’. *Sei emazteki torri dira eleketan iteko.*

Elerran: esan ‘decir’. *Gero elerran nekon...*

Elleba: iloba ‘sobrino’.

Ellegatu: heldu ‘llegar’. *Etxera ellegatzen naizela, ineunt lan goi.*

eman ta, buruan ta... artu ta etxera.

Entregu: gai izan ‘ser capaz’. *Bai entregu da bere kontus bizi eiteko, Yateko entregu naiz.*

Erabili, erebilli, eraili: andar ‘ibili’. *Jo, jo jo oiek eztakite nun erebilli, nun eldu zaten! Ongarriak eta... arriak lurrrak, ortan erailtzeko. Ni erailtzen naiz beldurraekin.*

Eraisi: erauntsi ‘borrasca’. *Eraisi bat gaitza eldu zela.*

Ereki: ireki ‘abrir’.

Eresi: erain ‘sembrar’. *Eresi ginun bazterrak ta, baña, atra nintzan orrara ta kanpora...*

Eri: gaixo ‘enfermo’.

Erki: erkia ‘tea’. *Subia bisten da erkiekin (Erosi tugu erki betzuk). Azkuek dakar Erki ‘un arbusto’, hortik heldu dira Erkiaga, Erkiza. Baina, Aranaren hiztegian ez da agertzen.*

Ernatu: esnatu ‘despertar’. *Jaiki, jaiki artzaña, ernatu goizean.*

Erreposki: poliki ‘despacio, pausadamente’. *Erreposki ongi atrako da.*

Esko: erratza ‘escoba’. *Ezpélékin? in esko aundi bat, ta kidár...*

Eskorratu: xukatu ‘escurrii’. *Ptxk’at eskorratu, gero oiek, lixura, butzura.*

Esparbatu: extender 'barreatu, hedatu'.

Espetera: espetera 'lugar donde se colgaban las tapas de las cazuelas'?... *sukaldeko... espetera ta.*

Estrabil: ikuilua 'cuadra'.

Extanpala: estalpala 'pala utilizada en las carboneras'. *Estaltzen duen pala mota bat, ikaztogieta erabiltzen zena.*

Ezperen: bertzela 'en caso contrario'. *Despeitzen du onek... berotasun ori, ezperen men eztaike bizi, je otzaeki!. Ezperen... bah, sosa bazen an izaten tzen bai...*

Fale: joale 'cencerro'. *Hartu faleak ta karriketetan arroituka.*

Fiar, fier: gogor 'duro, fuerte'. *Sobra fiar (demasiado duros, demasiada presión (beti paperak eskatzen ari ziren). Astoak dire fierrak.*

Fiarki: oso, arrunt 'erabat'. *Fiarki pollita iten zute orduan.*

Finitu: bukatu 'acabar'. *Finitu zai-kulakos gerrako denbora. Ia finitzen diren.*

Fite: laster 'rápidamente'. *Fite argitiko da.*

Gaitz: handia, izugarria 'grande, terrible'. *Pisu gaitza! uf! Terrible, hor pastu ditugun denborak. Zazpi txerrikume, gaitzak./ Tzinurriak, jo! gaitzak dire, tzinurri gorri oetaik? Merendu gaitzak iten zire. Gaitza zen gero, batak bestai ekentzen.*

Galdin: galdetu, galdegin 'preguntar' *Zuri galdiko zaitut.; Bai, bai, ní konten naiz, nik konpondiko tut... gauza oiek; iltzen al tzara trankil.*

Galtsunak: galtzerdiak 'calcetines'.

Garartzaro: ekaina 'junio'. *Después, pa mayo, mayatza, y después, pa junio, garartzarora, después garilla y no sé.*

Garilla: uztaila 'julio'.

Garbitu: hil 1. 'limpiar'. 2. 'matar'. *Fite garbitu zute bai, sugea.*

Gatu: katu 'gato'.

Genbera: gainbehera 'cuesta'. *Genbera artzen zelaik gu aitxikoaldikoa, gañetik, ala!*

Gezurki: gezurti 'mentiroso'. *Gezurrandi zara o gezurki.*

Gezurrandi: gezurti 'mentiroso'. *Gezurrandi zara o gezurki.*

Gibel: atze, gibel 'detrás'. *Ta, inguru etxa... artán ta, sekula éstute yagoko axerik ikúsi, óiloin gibéletik.*

Girgila: girgila 'sonajero, cascabel'. *Soñatzen du bere girgila: grr-grr-rrr.*

Giri: liberalak 'los liberales' (liberalak, gerra karlistan). *Falta da bertze lagun bat, obenean pastu da girien aldera.*

Gisala: gisa, modu 'a modo, de manera'. *Txakurra ta katuaín gisala.*

Gizeitsu: gixajo 'inocente, bonachón'. *Mazteak bazakie gizon gizeitsu zela.*

Goratu: altxatu 'levantarse'. *Txakurra losatuik goratu ze.*

Goizkuete: itzulipurdi, zilipurdi, jauzi??? *se cogió la yegua o un caballo o ¿qué tenía? Haciendo goizkuetes.*

Goiztatu: goiz jaiki 'madrugar'. *Goiztatu bear du, ardietara. Guardia zibilengatik erraten zuen.*

Handik bertzeko: batetik bertzera 'de una para otra'. *Andik bertzeko ellegatzen dire an... gizon pare bat eta: «Ah! jodidos, ze in duzie? Andik bertzeko atératzen da... naúsi artàko etxia, (zuzenduz:).*

Heldu: etorri, egokitu 'venir bien, llevarse bien'. *Guretako ongi dire, ongi heldu dire.*

Hobenean: behar bada 'quizás, a lo mejor'. *Obenean zuk in duzu lan goi.*

Iautre: ihauteri 'carnaval'.

Idiande: igande 'domingo'. *Idiande batéz, bai, juan giná, kuebára».*

Iduri: udiri, ikatza 'cisco, carbón menudo'. *Ekendu estalia, ta iduria fresko oietan, artu.*

Igillia: ilegeilea 'tejedor'. *Tejeros?... espera, espera, igilliak les llamaban.*

Iotu: eho ‘moler’. *Ba iotzeko almute bat kentzen zioite lakai.*

Iruzkia: eguzkia ‘sol’. *Goizeko hamarretakoan hasta da markatzen iruzki argia.*

Itai, eitai, eiari, egitai: igitaia ‘hoz’. *Eitaiakin, guk talluekin. Alkitzeki edo eitara egiteki, oekin ebaki ta dena ongi plegatuik? Olaxeko paxua?/Egitaiakin moztu o... eskuz, kaxoletaz, eta... gero, bildu? biltzen tzen ta...*

Itoa: jolas mota bat. *Egur bat ongi prestaturik, itoa izena zuena. ‘Tipo de juego’.*

Intxor: intxaur ‘nuez’.

Izertu: tximistak izan ‘relampagear’. *Izertu bat in du. ‘Ha hecho un relámpago’.*

Iztapu: iztarren azpian egiten den arkuari deitzen zaio ‘entrepiera’. *Beskoa artu? ta, dda! bota... bota tze-ko... iztapera.*

Jinestatu: sinistu ‘creer’. *Eztuzie jinestutzen ikusi artean.*

Jostatu: jugar ‘jostatu’. *Denak elkarrekin or juntatu ta... yostatzen tziren.*

Kanibeta: kanabite ‘cuchillo’. *Ta kanibetaekin markak eiten, dibujoak.*

Karakas, karraxka: karaka, soinua, zarata ‘cacareo’. *Besteak ikusi ziran bere karakas artara! Gelditu ze nerekin, baña andik bertxeko karraxka edo ortotsa ta buh!*

Kafi: kabia ‘nido’. *Berriz, dena paretan ziloak an... kafiak itero... usoak.*

Kakamikola: ardi eta ahuntzen kakak ‘excremento de oveja y cabra’.

Kakolak: ardi eta ahuntzen kakak ‘excremento de oveja y cabra’.

Kaskantona: harroa ‘orgullosa, engreída, chula’. *Mazte kaxkantona baña fierra.*

Kasko: 1. burua ‘cabeza’. *Kasko onekoa ze gure ama burua.* 2. kasko ‘Alto del monte’. *Gero kasko gortaiak sua botatzen da.*

Kauza: gauza ‘cosa’. *Kauza abek... bai. Mazteki lanak oek dire, ba-bai, oek dire; eunero berberak.*

Katamusa: katamotza ‘lince’. *Joaten dire kustera ta katamusa an, bidean? il(l)ik.*

Kia!: bai zera! ‘¡qué va!’.

Koba, kueba: leize zuloa ‘cueva’. *Erran neko: koba ura nun da?*

Kokote: lepo ‘cogote, pescuezo’. *Oroztarra kokote, mando zar bat il dute.*

Korputz: gorputza ‘cuerpo’. *Aurren korputza sartzeko.*

Kuadratu: gustatu ‘gustar’. *Kuadratzzen zaide, zaira.*

Kuasik: ia, kasi ‘casi’. *Kuasik etxe guzitan yokuan ta aitzen ziren.*

Kutxeta: goilara ‘cuchara’. *Artu, artu kutxeta ta... yaten ginue gustora.*

Larri: 1. maindiera ‘sábana’. *Erebiltzen zute [lihoa], larriak eta iteko; bestidurraekin, larriekin ta oetaik; dena.* 2. handia ‘grande, terrible’. *Gatúa gaitza zen! Etxeetakoak baino ederragoa bai? Bai, bai, larriago, ánitx... ta gizéna.*

Laur: lau ‘cuatro’. *Laur lauza oiek, kanpoko lauzak.*

Lauza: lauza ‘losa’. *Gero, kajon bat bezala egiten zute, lauza, lau lauzeki?*

Lekuttu: aldendu, lekutu ‘alejar’. *Ardiak lekuitten du bat, aitzen dielaik musika ori.*

Lengusi: lehengusua ‘primo’. *Nola erraten duzue primo? lengusia o ¿cómo será?*

Limizik: lehendabizi ‘lehendabizi’. *Limizik au. Limizik autzam ala, ta gero, ori ala.*

Lotsa, losa: beldurra ‘miedo, temor’. *Alako losa harrapatzen badiate!*

Lotsatu: beldurtu ‘tener miedo’. *Bate enintzan lotsatzen. Ník eré losá-tuik, geldítu nitze. Tximista arreki?...*

Maindi: marabedi ‘maravedí’. *Gizon propio arrei main diot maindi bet, le daré un céntimo. (Ilurdotz).*

Makur: txarra ‘peor, malo’. *Atzo baño makurrago.*

Manejazale: menderatzailea ‘dominante’. *Manejazalia kapitana.*

Maña: trebetasuna ‘habilidad, maña’. *Beti izan dire mañak, zerbaitetako.*

Marraka: ardi-marraka ‘balido’. *Auntza marrakan ta, semeak... tellatuan. Ardie dago marrakas.*

Marroa: marrua ‘mugido’. *Beia dago marroas.*

Matakan: enbor handia ‘madera grande, tronco’. *Artxen baut matakana bat main dakot buru burian.*

Menturatu: ausartu ‘atreverse’. *Ezin menturatu sartzera.*

Mokokan: haserre, eztabaidan ‘riñendo’.

Multzo, muntzo: multxoka, muntzoka ‘a montones’. *Kapittanaikin tortzen dire indioak muntxoka indioak.*

Muñigetzatu: muñigaz igurtzi ‘boñiga’. *Dena muñigetzatu ta dena leortzen ze.*

Murruzki: zabor multzoa ‘montón de escombros’.

Mutxo: multzo ‘montón’. *Alor zenbait badire, Alor mutxo at.*

Nabartxale: nabarziale ‘zagal que ayuda a un pastor’. *Nabartxaleak ez-takite oearka o bidelan paratzen.*

Naskia: nahaskia ‘revuelto de paja, malkarra, hoja y hierba picada preparada para los animales en invierno’. *Naskia, Saskia belarra o aotzaeki yatetik aziendak ongi nasi belarrekin.*

Nesako, nexako: neskatxa ‘la chica’. *Polita da, nesako pollita da. Nèxákuak? monjétara... ta mutikuak? fraillétara, bai.*

Nion: inon ‘en ningún sitio’.

Obenian: behar bada ‘quizás’. *Obenian bior bat o asto at artu? Ta... alportzekan aerki bestitu? Astoa?*

Oiarka, oearka: abarka ‘abarca’. *Nabartxaleak ez-takite oearka o bidelan paratzen.*

Olioadura: oliadura ‘extremaunción’. *Ekarri dute komekadura ta olioadura.*

Oron: ordua ‘hora’. *Bi oronetan atra andik. Oronak, oronbat, bi oronak, laurak...*

Ordotz: aketza ‘macho del cerdo’.

Ordi: irakin ‘hervir’ *ta eméngo... úra, pastén tze orrará? ordi bear tú berriis ta, buélta.*

Orrea: Orreaga ‘Roncesvalles’. *Orrean finitu ze.*

Pataka: patata ‘patata’.

Patategi: patatera ‘patategia’. *Bota dut patategi beiti, fosora.*

Pataterri: patata-soro ‘patatal, campo donde se siembran patatas’. *Pataterri zenbait bazire.*

Pausu: pausua ‘paso de animales’. *Ya...bertze pauso zerbai(t) topatzen nuén...*

Pe: behe, forma autonoma da ‘abajo’. *Pean pean paratzen zute. Pean berriiz bertze lauza bat. Peko aizia. Ori utzi hor, arrien pean. Arropepean sartzen tzitin telak eta gaztak.*

Pertigoiti: petirigorri ‘gosearen personifikazioa adierazten du’. *Nun ote daila gizon goi? Gizon gura Pertigoitin eo ala, yo, sukaldeko.*

Pipatu: erre ‘fumar’. *Nauzu pipatu?*

Pittat: pixka bat ‘un poco’. *Estute erraten ere euskaras, pittat, dena erderas.*

Pixpildu, pisbildu: kiskali, erre ‘abrasar, achicharrar’. *Ta, erretzen... balimaze... segidoan? pixpildu...*

Pizo: pisua ‘piso’. *Zer pizo! «Zer pizo! eztaike eman itxera! gutiena ogei kilo... pisatzen du!».*

Porroskatu: porroskatu ‘despedazar, destrozar’. *Nik, neé bízia izän dá... ré-fúñe!... porròskatuik, árront.*

Potta: muxua ‘beso’. *Katsú pótta, pótta... idán pótta... kátsu.*

Pozadore: abatza ‘pozal’. *Pozadorea hartu urekin ta, dda!*

Rakilikallu: ‘cortadora, tenaza’ eba-kitzaile, matxarda? *Juàten dá kusterá ta, axaría... zépoan. Rakilikállu bát.*

Sakamallu: sakamailua ‘Herramienta parecida al martillo’. *Sakamallue... Nola deitzeunte ori?*

Sario: saroi baten izena ‘nombre de campo’. *Aldi bates...yende, yende batez, juan nitzan Sarioara beekin.*

Sautsi: jaitsi 'bajar'. *Souts, Souste!, Sautsi ginen eta ukurtu...*

Segur: ziur 'seguro, seguramente'. *Ireberriko gizon bat mozkortzen ze segur. Biar bada baizen enaiz oroitzen segur ere.*

So: begira egon 'observar'. *Aire soan egon nitzen ni bi udaz. Tapatua Euriko...goma batzuk baginin, buruik hartutik.*

Sorik: gutxienez 'por lo menos'. *Lau sorik bar dugu saldu.*

Tenorea: garaia 'tiempo'. *Ya tenorea dugu etxera juateko.*

Topatu: topatu, aurkitu 'topatu'. *Topatu zen... basagatuuki.*

Tsuko: zur zati txikia 'trozo de maderá'. *Sí tsuko le llamaban a un trocico de maderá. Sí, joñó! artu? ta, dda! kasko-kaskoan... yo? ta, tsukoa?*

Txipi: txikia 'pequeño'. *Badire bi erriak bat aundia ta bertzia txipia.*

Txist: txist 'juego que consistía en echar un trocico de maderá'...*olaxeko...egur bat, ongi prestatu-rik...y cuando pegaban a ese cacharro decía txist.*

Trabajatu: lan egin 'trabajar'. *Lurrean trabajat, lurrean trabajean, bai. Bai hemen lurrian trabajian.*

Tranka: enbor handia 'madero grande'.

Tresna: arropa, jantziak 'ropa en general'. *Gero tresna xuriak edo onak aien gañetik.*

Tresneri: jantzi multzoa 'conjunto de ropa'. *Kubo aundiak, olaxeko kbook ta dena tresneri...*

Tripota: odolkia 'morcilla'. *Gero tripak atra ta tripotak ein ta...?*

Ttarra: txikia 'pequeño'. *Neri kuardratzen zaide ttarra. Ni juain naiz txarrera edo ttipira.*

Txamarreta: txamarra 'chaquetón'. *Pedroin txamarreta kartzten al duk...*

Txipia: txikia 'pequeño'. *Badire bi erriak..bat andia ta bertzea txipia.*

Txirrinka, txirrintxa, ttirrintta: soinua, zalaparta 'chillido del cerdo'. *Txirrintta aundia egiten men tzin.*

Txula: 'chula de jamón'. *Urdaitxul'at, ogi-pusk'ateki?*

Tzingar: txingarra 'tocino'. *«Tzingar pixk'at eztirate man nai...».*

Tzitzar: kazkarabarra 'granizo'. *Eguri ta elur... tzitzarrak.*

Udiri: ikatza 'cisco, carbón menu- do'. *Udiria, bai, ori da oben-obena. estaltzeko karbonera. Gero, ingurutik atra udirikin estalik, dena... ta gero.*

Ugal: uhal 'Correa'. *Gero, abarkak, pealeak? denak ugales inguratuik?*

Ugalde: ibaia 'río'. *Goaie ugaldera.*

Ukurtu: makurtu 'agacharse, aga- charse'. *Ta lañoa, ya juan tzen, ukurtu ala ta, jo!*

Unai: unaia 'vaquero'. *Hamar urte- tan unai nindeola.*

Untsalaz: ontsalaz 'en el mejor de los casos'. *Jakina! (?) A- Hasarratuko ziren baña... B-Botoiak kentzera, e? B-bai, bai untsalaz!*

Urlea: urlia 'fulano de tal'. *Halako urleak..., urlea.*

Urrin: usaia 'olor'. *Hemen da urrin gaixtoa.*

Urritz: urritza 'hembra'. *Ta ura zen urritza, 'hembra'.*

Urtuxik: oinutsik 'descalzo'. *Zenbaitzuk joaten zire urtuxik.*

Yarduki: jarduki 'hablar'. *Yardukitzen dut, nik aise. Aitzen tuzu yardukian.*

Yarralki: eseritzeko aulkia, bankoa 'asiento'. *(baze lenao bankoan yarral- kin bat ya, ederra).*

Yo indalekin: indarrarekin jo 'con fuerza'. *«Okasione ebetan, jo indale- kin»...*

Yosta: jolasa 'juego'. *Elkarrekin or yuntatu ta yostatzen tziren.*

Yostaketan: jolasten 'jugando'. *Zuringo mutikuak eta Larrasinguak yotzatzen zire... erregeak, bezperako erregian. Andik bidean, artu pezta ta, hala! yostaketan; andik bertzeko gal- du, lurrera erori ta... ezin bilatu gero.*

Zalapartaka: zarata eginez ‘haciendo ruido, a trompicones’. *Otsoa zalaparka (zuzenduz:), auntza zalaparka...*

Zalui: laster ‘pronto, rápido’. *Zalui ilundiko da.*

Zamari: zamaria ‘caballo’. *Zamariain buztana, llaburra.*

Zarri: ezarri ‘poner’. *Bai, bai, ta an iten tze, aldare bat, ongi... zarrik?*

Zazkatu: zafarse, librarse ‘saihestu, ospa egin’. *Ugaldia indarra hartu ta kontrarioain aldera eman, jode! Nolapeit ere zazkatu an!*

Zendako: zertarako ‘para qué’. *Hori, zendako?*

Zernahi: edozein ‘cualquiera’. *Zernaizik yaten dut.*

Zilipurdika: zilipurdia egin ‘voltereta’. *Te! gure alorrera, ta lei-zilipurdi-kan! bai. Ama.*

Zilo: zulo ‘agujero’. *Arratio ziloak badire.*

Ziper: baratxuria ‘ajo’. *Bauzu ziper-rra pikatuik?*

Zito: ijito ‘gitano’. *Zito oiek eldu zire Gorraixko aldeti.*

Zolda: zikinkeria ‘suciedad’. *Gero zolda guziak ekentzera.*

Zula: zura ‘madera’. *Ze zulak, ze zul-klase ze. - «Nundik arrapatu uk... zul gau?».*

Zurra: zaplastekoa ‘tortazo’. *Zenbait zurra artu ze, bai beganik.*

6. ONOMATOPEIAK

Jakina da euskararen eremuan onomatopeiek toki anitz hartzen dutela. Saturnino Etxamendik erabiltzen dituen onomatopeiak ugariak eta adierazkorrak dira. Oso deigarria eta aberatsa iruditu zaigu gizon honek erakusten duen onomatopeien ugaritasuna. Bertzaldetik, jakina da, Oraingo mintzamolde berrietan, onomatopeiak ez dira hain erabiliak, horregatik, are interesgarriago suertatzen dira. Alegia, gaurko hizkera batuagoan eta egungo diskurtsoan hauen maiztasuna gutxitu dela erranen nuke. Ondoko Erroibarko haranekoak lan batean bildu genituen (ik. Ibarra, 2011). Hauetako anitz interjekzio gisa sailka daitezke; horien artean etxabereak deitzeko soinuak (*mis-mis!, ttauri-ttauri!*), eta bertze hainbat adierazpide ditugu: *kia!, ako!, ekilikua!* Arrietako hauek ere, gisa honetakoak ditugu:

Bron-bron: auto-hotsa ‘ruido de coche’. *Bron-bron-bron las ruedas!*

Danba: kolpe-hotsa ‘sonido al dar un golpe’. *Paretati ddanba! aien gañera. Artzaeak, abiatzen zuelaik, denba! denbada!...*

Danba-danba: elur-hotsa ‘sonido al nevar’. *Elurra danba-danba ari zen.*

Dda!: kolpe sendo baten hotsa ‘sonido de golpe seco’. (*A ver a dónde iba la pelota... dda!*).

Din-beda: kolpe-hotsa ‘sonido al golpear’. *Artu berriz, ddin-beda!, ya orai, proba zazie (toma).*

Dindin-dandan: ezkil-hotsa ‘sonido de campana’. *Ta exkilak, dorre-*

ko... eskilak, artu dindin-dandán! deindein-dandan!...

Dziriri-bíbli-ízi: argi-hotsa ‘sonido de la luz’... *Dziriri-bibli-izi bistatzen zela.*

Fiu-fiu: balaren soinua ‘sonido de bala’.

Fsss!... fsss!: ihes egitearen soinua ‘sonido al escaparse deslizándose’. *Barnetik súgea fss! Fsss!, Sugeak iten zue: fsss!...*

Go-to-to-to-to!: zerbait ez onartzea ‘en sentido de rechazo’. *Go-to-to-to-to! Erran nuen para, para!, bere buruari. hala! tzánpa dá, tzánpa...: zanpatu.*

Ijuji-ajaja: irriaren soinua ‘sonido de la risa’. *Ijuji-ajaja omen tze.*

Ken-kén, ken-pen: mailuaren hotsa 'sonido de golpeo en la fragua'. *Sartu nitza... arotzaenia, ta fraguara, gizona ai zé lanian Ken-ken, ken-pen.*

Kerris-karris-kerris-karris: elurretan ibiltzearen hotsa 'sonido al crujir por la nieve'. *Zangoak kerris-karris-kerris-karris.*

Kir-kir-kir: ura irekitzearen soinua 'sonido del agua hirviendo'. *Kaldera batean, ura... kir-kir-kir dena.*

Klis-klas: arin eta irmo egindako ekintza 'sonido ligero y certero al cargar el fusil'.

Krax: 'sonido al encender la luz, krax!'.

Kuxkurrux: mugimendua egitea lurrera erortzean 'movimiento'. *Kuxkurrux-kurra lurrera etzanik.*

Plis-plas: zaplasteko-hotsa 'dar una torta'. *Jo! Xixtua in... -ten ba-, bágindué elízan, jóe! itzúli tä... plis-plas!... lúrrera; bértze!*

Pon-plin-pa-tanta: hots zalapartasua 'sonido al golpear'...: *Pon-plin-pa-tanta era más animal! Bajamos.*

Popin-pan: kolpe-hotsa 'ruido de golpes'. *Por cualquier cosica aquel hombre, pópín-pan!...*

Raka- raka: mugimendu laster eta bapatekoa 'movimiento rápido y repentino'. *Rrak-raka-raka egon tzen.*

Ri-ra: mugimendu azkarra 'movimiento de un lado para otro'. *Báia ta pasadéra... jóe! rí-rra-rrí-rra... andik etxéra.*

Rrak: kolpe azkarra 'golpe fuerte'. *Sautsi pantalonak ta rrak! (kaka egitea adierazten du).*

Rrast!: irristatzearen soinua 'sonido al resbalarse'. *Irristatu, lasatu zela adieraziz.*

Rrr-rrr-rrr-: mugimendu azkarra 'sonido de ir de un lado para otro'. *Faleak hartu ta rrr-rrr-rr.*

Tapa-ttapa-tapa: 1. 'sonido al caer la nieve'. *Tapa-tapa-tapa asi ze elurra.* 2. 'sonido al hacer algo poco a poco': *Gero udiria kendu ta tapa-tapa-tapa egurrak.* 3. 'sonido de andar despa-

cio'. *Utzi mandoa bakarrik, artu zuen tapa-tapa-tapa, ta orai non dae?*

Tarraan-tantan-tantan-tanttan-tanttan-banban-banban-banban: zapa-parta handia, lapikoen hotsa 'sonido de ruido de cacerolas'. ... *lotsatuik, orduan!... kazólak eta, kuberterak, denak: lapikoen soinua.*

Tenpitin-tanpetan: doi-doi ibiltzearen hotsa 'sonido al andar torpemente'. *Luego, tanpetin, tanpetan... se fue a avisar a los de Txarles.*

Terren-ten-ten-ten: lapikoen hotsa 'ruido de cazuelas'. *Etxe hartan, arroi-tuak espeterak, han denak tterren-ten-ten-ten.*

Ttette-tttette-tttun: esamesa, txu-txumutxua 'sonido como si rezara, dijera algo entre dientes'. *Orduen? eman... résponso an: «Ttette-ttette-tuge-tutun».*

Ttemiatta-tetta-tetta: hizketaren doinua adieraziz 'sentido de hablar'. *Aen yardukian ttemiatta, tetta, tetta.*

Tinpun-kenpun-kenpun: kulunka ibiltzea 'movimiento de la cuna'. *Gero andik itzuli ta iten zuela ola, bi aldetara, Tinpun-kenpun-kenpun.*

Tik-tik-tik: inazturaren hotsa 'ruido de relámpago'. *Tik-tik-tik inazturaren soinua.*

Tipi-tapa: gauzak poliki egitea 'hacer las cosas poco a poco'. *Y empieza y típa-tápa, típa-tápa... yo también, poco a.*

Ttik-klíxkíti-ttik: euritakoa itxi zitzaioneko soinua 'sonido de metal'. *Tan pronto como eso ttik, hace un ruido así y se fueron las luces.*

Ttun-ttun: poliki-poliki oinez ibiltzea 'andar despacio a pie'. *Ttun-ttun-ttun joaten zen, tin-tun-ttun-ttun jua men tzire launetara.*

Tzipititzapata: mugimendu lasterra 'movimiento rápido'. *Zilip... -pirti-zalaparta, an, sugea! baña txinurriak, denak lotu ziren? aen gañera, eta au-au-au!...*

Tzirripi-zarrapa: ahal den bezala 'á duras penas, como se puede'. *Tzirripi-zarrapa bajé.*

Tzurrupea: edatearen hotsa 'sonido al beber'. *Beak ba, ja! tzurruunpa-tzurruunpa... ixtantian [edan zuten].*

Zanba-zanbala: hainbat kolpe edo elkar jotze 'golpear de un lado para otro'. *Azkenean artzaea joan makillekin? zanba-zanbala!... il zute.*

Zazta-zazta: kolpatzearen soinua 'sonido al dar golpes con un palo'. *Ni makileki tazazta-zazta-zazta...*

Zilipirti-zalaparta: mugimendu zaratatsua 'de aquí para allá'. *Zilipirti-zalaparta han sugea.*

Zinpi-zanpa: behin eta berriz kolpeak ematea 'sonido al dar golpes'. *Bentanak eta balkonak ertsi zinpi-zanpa; Zinpi-zanpa aixkorakin.*

Zipiti-zapata: keinu zatarrez mugitzea 'de un lado para otro'. *Jode! an biok zipiti-zapata.*

Zirristaka: pilaka 'a montones'. *Ura zirristaka bazter guzietaik, ta, gustian egota da.*

Zizta-zazta: zirrikatu 'sonido al incordiar, azuzar'. *Zizta zazta: zizta-zazta!...*

7. ONDORIOAK

Kokapen dialektologikoari dagokionez, ondoko Erroibarko mintzoarekin parekatzean, ikusten dugu Artzibarkoak ekialdeko isuri handiagoa erakusten duela, Erroibarkoak baino. Nafarroa Garaiko Hegoko hizkeretan ageri diren ezaugarri hauek egun Ipar Euskal Herrian eta Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan erabiltzen dira; honek erakusten du garai batean eremu hauek harreman estuagoa eta sakonagoa zutela, egun galdu dutena. Dударik gabe, Aribeko feriak eta bi ibar hauen arteko ezkon-harremanek sendotzen zuten erlazio hau. Hasierako kapituluan ikusitako ezaugarriez gain, ondoko hauek ere laguntzen dute hizkera honen kolorea borobiltzen.

Caminok (2003: 143) dioenez, «Eguesibarko euskararen eitea duen hizkerarik baldin bada, Artzibarkoa da hori eta Hego Artzibarkoa, bereziki». Guk, orain arte, Erroibarkoarekin lotura hertsia sumatzen bagenuen ere, testu hauek aztertu ondoren, ekialdeko isuri handiagoa ikusten dugu. Honatx, ikuspegi hau borobiltzen laguntzen duten arrazoiak:

- Zenbatzaileetan *-r* dunak ageri dira: *irur, laur*.
- **j* hotsaren aldaera sabaiaurrekoa kasu ugarietan gertatzen da: *xito, xendia, xaie, sautsi*.
- *U* bokalaren palatalizazio kasu bakan batzuk daude: *diabrien figura, ordian, diabrieikin*.
- Gisa berean, monoptongaketak badira, *ai* diptongoa > *i* bihurtzen da, ekialdean eta GN hegoaldekoan: *jinkuenpaxa*, eta *gira, niz* aldaera bakan batzuk.
- Diptongo laburketak edo bokal arteko **j* galtzeko joera handia da (*maea, anaea, bea*), Erroibarren bezala.
- Artzibarren *au* diptongo kasu gehiago daude Erroibarren baino. Arrietan *daus, gaure* kasuak.
- Erakusleetan eta adberbioetan *gola, gorrek* eta *g-* moduko horien maiztasuna handiagoa da.
- *Bida, bida* eta horrelakoak maizago erabiltzen dira Erroibarren baino. *-tu* atzizki analogikoaren berrikuntzak, Nafarroa Garaiko erdialdean sortzen direnak, ageri dira.

- Pluralgilean gertatu den *zki-> it-* berrikuntza ere, Nafarroa Garaikoa dena, nagusitzen da.
- -tu atzizki analogikoaren berrikuntzak, Nafarroa Garaiko erdialdean sortzen direnak, ageri dira.
- Baldintzazkoetan *edin* eta *ezan*-ekin osaturiko kasuak ditugu, Elkanon bezala.
- Nork-nor kasuak gehiago daude hemen Erroibarren baino.
- *Norekin* kasuan, *-ki* dugu soziationean.
- Lokuzio mota hauek: izena + adj.: *egur bat ona* aezkeraz bezala.
- Hiztegian badira hitz anitz BN-koak direnak, Hiriberriko Anbrosio Usozen produkzio lexikoa hartzen badugu, ikusten dugu badela lexiko ugari BN-kotzat jotzen duguna: *andana, arno, atxiki, burrustaka, biziki, eskuara, sakela, untsa, untsalaz, xarmant, andegatu, finitu, oron, fite, pipatu, porrozkatu*; nahiz hauetako hitz batzuk ere Erroibarren entzuten diren (*untsalaz*, salbu). Eta Etxamendik ere ohiki *naiz, zara, aiz* eta *gara* erabiltzen bazituen ere, gero *niz, iz, bazira* eta *gia* modukoak bildu zizkion Artolak (2010: 17).
- Erran bezala, hiztegian: *fite, finitu, fiarki, erreposki, so, lotsa, oron* ‘bel-durra’ hitzek BN-rekin eta ekialderekin lotzen dute. Hauek Erroibarren ere erabiltzen dira, baina, Artzibarren ekialdeko lexiko gehiago dago Erroibarren baino, adibidez: *eleketan (sei emakume torri dire eleketan iteko)* (Hiriberrin), *pot, baratu, erki, garagartzaro, pispildu* ‘erre, kiskali’, *zito* ‘ijito’, *segur*. Hiriberrin, *trabajatu* hitza dugu erronkarieraz bezala, posible da hizkuntz heriotzaren seinale izatea, baina, badirudi ekialdeko ibarrekin elkar daitekeela.
- Goiko bokalek eragindako asimilaziorik ez dago Artzibarren (Arrietan), beraz, erdialdeko berrikuntzen eragin hau ez da iparralderago dagoen Arrietaraino heldu, baina, bai Espotzera.
- Gisa berean, Eguesibartik aldentzen da *-ako, -akote* formekin, datiboa hirugarren pertsona denean. Berrikuntza omen da hau, edo *derauko > dako*-tik eratorria. Badirudi azken urteotan Nafarroako erdialdeko joera batzuen eragina heldu dela ibar honetara, nahiz behiala harreman estuagoa zuen ekialde eta BN-rekin.

Horrela ba, goinafarreraren ekialdeko kolorea erakusten dituzten ezaugarriak aipaturiko hauek dira; nolana ere Eguesibarrekin duten lotura handia ezin da ahaztu.

BIBLIOGRAFIA

- APECECHEA, J., 1975, «Programa de vida cristiana en una aldea de la zona Pamplona en el XVIII: Tres sermones inéditos de J. de Lizarraga en euskera», *FLV*, 16, 89-129.
- 1976, «Carta autógrafa y Testamento de J. de Lizarraga (1805)», *FLV*, 24, 347-362.
- 1978, *Joaquín de Lizarraga (1748-1835). Un escritor navarro en euskera*, Pamplona.
- ARANA, A., 2004, *Hegoaldeko goi-nafarrera, Artzibarko aldaera*, Hiztegia, Hiria Liburuak.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA (EAEL), 1983, *Euskalerriko atlas etnolingüistiko*, Donostia, 2 ale.
- ARTOLA, K., 1985, «Ezkaibarteko Euskara», in *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Zarautz, 97-112.
- 1992, «Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (Hurbiltze-saiakera)», *FLV*, 60, 187-227.
- 2006, 2007, 2010, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan, 1, 2, 3, 4» *FLV*, 2006, 393-428, 2007, 5-31, 2010, 5-50.
- BONAPARTE, L., [1869] 1991, *Opera Omnia Vasconice*, 3 ale, Bilbo, Euskaltzaindia.

- CAMINO, I., 2003a; *Hego nafarrera*, Nafarroako Gobernu.
 — 2003b, «Hego-nafarreraren egituraz», *FLV*, 96, 427-468.
- ECHAIDE, A. M., 1966, «Regresión del vascuence en el valle de Esteribar, Navarra», *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas*, Pamplona, 257-259.
 — 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, Iker- 3, Bilbo, Euskaltzaindia.
 — 1989, *El euskera en Navarra* (1965-1967), Donostia, Eusko Ikaskuntza (= Hizkuntza eta Literatura, 8. zb.).
- FAGOAGA, B., 1959, «Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburu argitara gabekoetatik ateratako itz sailla», *Euskera*, IV, 63-68.
- IBARRA, O., 1991, «Mezkirizko toponimiaz», *FLV*, 58, 301-357.
 — 1995, «*Cispamplonés* barietatearen inguruan», *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, 29-1, 267-318.
 — 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Argit., Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
 — 2002, «Erroibarko onomastikaz ohar batzuk», *Huarte de San Juan*, 6, 21-44.
 — 2011, «Onomatopeiak Erroibarko hizkeran», *Huarte de San Juan*, 11, 115-133.
- IRAIZOZ, P., 1978, «Vocabulario y fraseología de J. de Lizarraga», *FLV*, x 29 zb. 245-297; 30 zb. 461-486; xi 31zb., 121-162; 32 zb., 303-332.
- IRIGARAY, A., 1932, «Un acta de Ayuntamiento en lengua vasca» *RIEV*, 23, 565-568.
 — 1959, «Lizarraga Elkanokoa», *Euskera*, IV, 119-126.
 — 1979, «Rescaldos del euskera de Iroz (Valle de Esteribar, Navarra)», *FLV*, 31, 163 eta hur.
- MITXELENA, K., 1958, «El vascuence en Beriain», *BSVAP*, XIV, 263-264.
 — 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia.
 — 1967, «Notas fonológicas sobre el salacenco», *ASJU*, 1, 163-177, Berrarg. in Mitxelena (1987), 221-234.
 — 1976b, «La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas», *RSEL*, 6.2., 309-326.
- NAFARROAKO GOBERNUA, 1990, *Nafarroako euskaldunen mintzoa*, Euskalherria Irratia.
- ONDARRA, F., 1972, «Producción literaria de J. Lizarraga (1748-1835)», *FLV*, 11, 265-281.
 — 1978, «La escuela de gramática de J. de Lizarraga en Elcano», *FLV*, 28, 127-138.
- SARAGUETA P., 1979, «Nere oroimenok», *FLV*, 31, 171-176.
 — 1979, «Trinidad Urtasun Bertsolaria (1894-1978)», *FLV*, 32, 333-338.
- YRIZAR, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa probintziala, 2 ale.
 — 1985, «Aparición y desaparición de las formas verbales en -ako, -eko en el alto-navarro meridional», in *Aingeru Irigarai-ri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, 257-292.

RESUMEN

Más sobre el habla del norte del valle de Arce

Resumimos en este artículo las características principales del euskera del valle de Arce y lo comparamos con las de los valles colindantes; para ello nos hemos basado en el habla de los últimos hablantes, y especialmente en las grabaciones que hizo Koldo Artola en Arrieta e Hiriberri entre 1980-1983 y que han sido publicadas recientemente en *FLV*. Detallamos las características más relevantes de esta variedad, comparándolas con las otras del «navarro meridional», y completamos la visión de anteriores investigadores.

Palabras clave: valle de Arce; dialectología; alto-navarro meridional; Arrieta; Villanueva de Arce.

LABURPENA

Artzibar iparraldeko hizkeran sakonduz

Artikulu honetan laburbiltzen ditugu Artzibarko bi herritako ezaugarri nagusienak. Ezagurri hauek azken hiztunen mintzotik atera dira eta Koldo Artolak 1980-83 urteetan eginiko grabaketetan oinarritu dira, Arrietan eta Hiriberrin. Honezaz gain, Artzibarko hizkera hurbileko haranetako mintzoekin parekatzen dugu, hego-nafarreraren mugak hobeki zedarritzeko asmoz, ezaugarri bereizleak zein diren ikusiz.

Gako Hitzak: Artzibar; dialektologia; goinafarrera; Arrieta; Hiriberri.

ABSTRACT

More on the speech of the north of Arce Valley

This paper presents an overview of the Basque dialect spoken in Arce Valley; this is a variety of «Southern high-navarrese». This article is specially based in the speech of last speakers from Arrieta and Hiriberri, who were interviewed by the dialectologist Koldo Artola, during the 1980-1983 period. We present its most specific characteristics and we compare it with the other near varieties, in an attempt to get to know this variety better and to complete the research carried out by previous researchers.

Keywords: Arce Valley; dialectology; Southern high-navarrese; Arrieta; Hiriberri.

